



Iturria: *Euscaldun onaren biziera*, Sebastian Mendiburu.
Martin Joseph Radaren etxean, 1762.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuBiziera.htm>

EUSKALDUN ONAREN BIZIERA

Sebastian Mendiburu

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**EUSKALDUN ONAREN BIZIERA,
MEZAREN ENTZUN-BIDE LABUR ERREZA,
ERROSARIOKO AMARREKOEN ASIERA,
ETA ZENBAIT BEDERATZ-URRUN EDO NOBENA**

Jesusen Konpañiako
A. Sebastian Mendiburuk egiñak

1762. Urtean

BEHAR BEZALA.
Iruñeko Libru-gille Martin Joseph Rada-ren etxean



EUSKALDUN ONAREN BIZIERA

Ongi ta bear den eran bere lanak egin nai dituen nekazariak artzen ditu, haratarako diran neurriak; egiten du aldian aldiko neurriak eskatzen duten lana; ta biltzen du azkenean, bildu nai zuen garia, artoa, sagarra, edo beste gauza.

Ori bera da, zuk ere egin beharra; noiz, ta nola lureko lanak, eta noiz, ta nola animakoak egin behar dituzun, ongi ekustea; ta, Zeruko ondasunak irabazteko, ona den eran, ta denbora gauza bakoitza zuk egitea. Ori zuk egin ezkeru, Zerua zuk, edo Zeruko glori-andia irabaziko dezu.

Orretarako dira, neurrien billan zere burua zuk auts ez dezazun, agertuko dizkitzut nik, euskaldun on batek ar ditzaken, zenbait bada ere. Eta, zure gogoan oriek obeki sartuak gelditi ditezun, agertuko dizkitzut nik bere bidez; edo agertuko dizkitzut, bein egunorokoak, gero hasteorokoak, urrengo aldian illorokoak, eta azkenean urteorokoak. Asi gaitezen lenbizikoetatik.

§. I.

ONGI BIZI NAI DUEN EUSKALDUNAK EGONORO EGIN DITZAKEN GAUZAK

1. Ongi bizi nai badezu, asi zaitetz zu, jaiki, ta bereala zerbait gauz on egiten. Belaunikaturik bada, edo era onean zu zaudela, ziñatuko zara, jaiki horduko: ta errain diozu zere Jangoikoari: *Jauna esker* onak nik zuri, egin ninduzunetik egungo egunerañor zor dizudan, guziagatik. Zure izenean izan ditezela, nik gaur egin, eraman, edo gogoan artu behar ditudan, gauza guziak. Indazu zuk guziak zuzen, ta utsik bage, egiteko, grazia: ta indazu zuk hau, Jesusen Bihotzeko amore nekeak gatik, eta Jesus beraren Ama maitearen izenean. Egiten dudun gauz on, ta daramadan, neke guzia izan dedilla nere Animaren onerako, ta Purgatorioan erretzen dauden, nere Aide, ezagun, ta gañerako guzien alde, zuk zerorrek nai *dezun eran*.

2. Esazu gero *Aita gure bat*, eta *Abe Maria* Jesusen amore, ta neke guzien izenean; ta irur *Abe Maria* Jesusen Amarenean. Zere Aingeru onaren laguntza eskatzen dezula, beste *Aita gure bat*, eta *Abe Maria*; ta beste bat zere izeneko Santuari; bere laguntza bera eskatzen diozula.

3. Entzun behar dezu zuk zere Meza, al dezun, egun guzietan.

4. Elizaratzen zaran, egun guzietan egin behar dezu zuk, animen alde, bost Aldareetako zere otoiza, Aldare bakoitzean erraten dituzula (prisaz ezpazaude) *Aita gure*, ta *Abe Mari*.

5. Esan behar dezu zuk egunoro zere Errosarioa, etxekoekin, etxean zu arkitzen bazara: Elizan, zu an zaudela, hau esaten denean; edo zere bakartasunean, naiz dela, bidean zabiltzala, naiz zere tokira ondoan.

6. Al dezun, egunetan artuko dezu zuk, zere liburua; ta hartan egon zaitetz, dezakezun denboran: bai ta gogozko otoitzean ere.

7. Al badezu, Elizarako zara egunoro; ta Elizarako zara, Meza entzuteran, ezezik, an Jesusi bere Sakramentuan ekuste onak, eta agur humillak ekuste onak, eta agur humillak egitera.

8. Elizaratzen zaran aldietan, ta Elizaren bat zuk zere etxetik, alorretik, bidetik, zelaietik, menditik, edo nondik ere-nai ekusten dezunean, egiozu zere agur-era, ta adorazionea, an bertan zure amorez Sakramentaturik arkitzen den zure Jangoikoari; ta esazu aldian: *Alabatua izan dedilla Aldareko Sakramentu Santua, ta Jesusen Bihotz maitagarria*. Eta goizetik arratserañor esazu zuk hau bost bider, edo borts aldiz beintzat; eta aldi oro *Aita gure*, ta *Abe Mari* bat erraten dezula.

9. Ziña zaitetz zu goiz-arratsetan, jaterakoan, itxetik ateratzean, lanean asitzean, zerbait perill, edo naigabe izaten dezunean, ta gauz onen asieran; ta esazu aldian zere *Abe Maria*; ta bidenabar eska zagozu Jesusen Amari bere laguntza: baita zerekin dezun, zere Aingeru onari ere.

10. Horduoro ere esan behar diozu bere *Abe Maria* Jesusen Ama maitagarriari.

11. Oitu zaitetz irur *Abe Mari* erratera, *Abe Mari* ezkillan aditzen dezu-netan; ta errazkitzu zuk oriek era onetan: errazu lenbiziko dandan: *Angelus Domini nunciavit Sancto: Ave Maria gr. &c.* Bigarreanean: *Ecce Ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum: Ave Maria. &c.* Eta azkenekoan: *Verbum caro factum est, & habitavit in nobis: Ave Maria. &c.*

12. Onetan zu asitzen zaranetik irabazten dituzu eun eguneko Indulgenziak, ori zuk zere bekatuez ongi damaturik, etabelauniko egiten dezun, aldioro. Eta illoro *Indulgenti plenari*, edo *oso* bat irabaziko dezu, hartarako zuk artzen dezun egun batez konfesa-komekatzen zarala, ta egun bereko *Abe Mari* denboran ori era orretan egiten dezula, ta denbora berean, Aita santuak nahi duenaren alde Jangoikoari otoitz egitearekin. Benedict. XIII. 14 Septembr. 1724. Aupd Mag. Bullar. tom. 13. pag. 130.

13. Naiz bakarrik zaudela zu, ta naiz lagun artean; naiz geldirik, naiz lanean, naiz isillik, naiz jolasean arki zaitetzela, oroi zaitetz zu alik-maizena



zere Jangoiko maitagarriaz; ta gutianean, oroi zaitez horduoro laur aldiz beintzat. Eta oroi zaitez, bein zere bekatuen barkamentua Jangoikoari eskatzeko, beste aldi batez, Jangoiko berari bere ontarte, ta onсадun guzien eskerrak emateko; berriz bera ziñez maitatzeko; berriz, ta berriz ere, ori bera egiteko; beste batez, zer hari zaran ekusten dagola, gogoan artzeko, beste batzuetan Jangoiko berari bere grazia, ta laguntza eskatzeko; ta aldi bakoitzean, ongi dagokizun, gauzaren baterako.

14. Zere hitzkuntza txarretan errazu *Aita gure* bat, eta *Abe Maria*; maldizione, edo eskario gaistoetan errazkitzu *bost*; eta, gauz itsusiagoren bat egiten dezunean, errazu zere *Errosarioa*. Eta, ori zuk egitean, eskatu behar diozu zere Jangoikoari, egin dezun gaizkiaren barkamentua, ta gaizki berririk ez egiteko grazia.

15. Egizu goizeko otoitz, ta errezo bera etziterakoan ere. Baña hau zuk egin baño len ekusiko dezu, nola zuk egin dituzun egun guziko zere gauzak. Eta, utzi badituztu zenbait otoitz, edo *Aita gure*, ta *Abe Mari*, erran behar dituzu ordeñak, etzin baño len. Eskatuko dezu gero, *Nere Jesu Kristo Jauna*, &c, esaten dezula, zere oben, ta uts guzien barkamentua.

§. II.

ONGI BIZI NAI DUEN EUSKALDUNAK HASTEORO EGIN DITZAKEN GAUZAK

1. Igandeak dira, gure Jangoikoaren egun bereziak; eta orregatik dira, Euskaldun onak Elizan, ta gauz onetan eraman behar dituen egunak. Berebat egin behar du Jai osoetan ere; bada oriek ere gure Jangoikoaren egun bereziak dira. Egund orietan, bada, egin behar dituzu, egunorako berezi ditugun gauzak; bai ta beste al dituzunak ere. Eta guziak egin behar dituzu, bertze egunetan ez bezala, ta guztiz garbiro, ta santuki bizi zarala.

2. Zoaz beti Meza-nagusira, Besperetara, Errosarioa, Exerzioetara, ta Doktrinara, edo gauz onak aditzera. Eta gauza beretera eraman behar dituzu zere humeak, itxeko guziak, eta al dituzunak.

3. Neke andirik ez dutenak, eta osasun onarekin arkitzen diranak saiatuko dira astean baru bat, edo zerbait bertze hildura, edo mortifikazione egitera. Eta, besterik ezin dutenak, begiak bilduz, beren mihiak isill-eraziz, jan edan laburrez, edo bertze alderen batera, ostiralean, bada ere, edo noizbait beren buruak zerbait nekatu behar dituzte.

4. Eriren bat, edo beste ekustea, beharrean arkitzen denari zerbait ematea, naigabeturik dagonari nekeak arintzea, aserre daudenak palak-eraztea, ta hitz onez, ibiller obez, ta beste edozein bidez, beharrean dagonari, al den eran, laguntzea, ongi bizi nai duen edozein gizonen egitekoa da, ta alik maizena Euskaldun onak egin beharra.

§. III.

ONGI BIZI NAI DUEN EUSKALDUNAK ILLORO EGIN DITZAKEN GAUZAK

1. Konfesatu, ta Komuniatuko zara, gutien-gutianean illean bein: bai ta zere Konfesor onak berezten dizkitzun haste edo egund guzietan ere. Eta, hau zuk egitean, behar den eran egiteko, ekus ditzaketzu: *Jesusen amore nekei dagozten otoitz-gaietatik* azkeneko ogei ta biak, edo bost-garren Liburuko guziak; bada guziak dira, orretarako egiñak.

2. Elizan arkituko zara zu, Jesus Sakramentua Aldarean agertzen den, arratsaldeetan; ta aldi orietan an egund beharra zara, beste aldietan baño ere kontuzago, ta Errege guzien Erregurekin, ta zere Jaun ta Jabearekin zaudena bezala.

§. IV.

ONGI BIZI NAI DUEN EUSKALDUNAK URTEORO EGIN DITZAKEN GAUZAK

1. Egin ezpadezu len bein ere, egizu lenbaitlen bizitza guziko konfesionea, edo konfesionea jeneral bat.

2. Urteoro egizu gero urteko zere konfesionea, edo zure Konfesor onak deritzana.

3. Urtean egin ditzaketzu zenbait Bederatz-urrun, edo Nobena; ta, besteen artean, Jesus maitearen Bihotzarena.

4. Bihotz bereko Kongregantea bazara zu, Konfesa-komuniatuko zara zere Kongregazioneko egund andian; ta ez dezu uts-egin behar egund hartako festara, edo funtzionera.

5. Ez dezu gelditu behar, Exerzioetara bage, oriek irauten duten egunetan.



6. Kongreganteak eri daudenean, ta oriek ill ondoan egin behar dituzu, Kongregazioko erreglak aldi orietarako berezten dituzten gauzak.

7. Onak izateko, izan behar dute Kongreganteak bizitza garbikoak, eta erran-biderik ematen ez dutenak.

8. Denbora berean izan behar dute, Jesusen Bihotzeko Eskolatik ateratzen ez diranak, edo ango humillera, ta mansotasuna ikasten dabiltzanak.

9. Eta, orietatik bat zu izateko, egizkitzu zuk zere Kongregazioneko gauzak alik zuzenkiena, ta dezakezun erarik onenean.

10. Kongregazioko karguduna bazara zu, edo itxeko karguarekin arkitzen zaran gizona, ekusi behar dituzu, Jesusen Bihotzaren debozioko Libruan arkitzen diran Erreglak.

§. V.

KONGREGAZIOETAKO ARRATSALDEETAN ERRATEN DIRAN OTOITZAK

JESUS SAKRAMENTATUA AGERTU-ONDOAN

KARGUDUNA. Alabatua izan dedilla, Aldarean dagoen Jesus-en Bihotz maitagarria.

GUZIAK. Orain, ta beti.

K. Baita, bekatuaren loirik ekusi etzuen Jesusen Ama ere.

G. Alaber.

K. Jesus gurea, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Gugatik Gizon egin ziña, bizi guzian, neke-izerdia baizik, ekusi etzenuena, ta, odola zeriezula, Grutze batean josirik gelditu ziñan, Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Gugana aserre dagoen Aita palakatzeko, ta gure bekatuak gatik zor diogunaren alde, Aldare orretan gelditu zaran Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Gure Bihotzak, zureari dariozkan grazizko argiz ta amorezko suz bete naiez zauden Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Gure bekatuen gurutzeak, eta kulpen arrantza gogorak zure Bihotzari eman zioten neke, ta estutasunaren damua eskatzen dezun Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Indartsuen janarizat, eta anima eriei indarrak emateko, Aldarean gelditu zaran, Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Artu nai zaituztenentzat, Aingeruen ogi, ta edaten dutenak Birjin egiten dituen, ardo egiñik, Mai orretan zauden Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Amorezko labe, ta sutegi egiñik zere Bihotza dadukazuna, ta gurearen amorea eskatzen dezun, Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Itsasoak are adiña bekatu dituen gaistoarenzat, eta atsegin guziak or arkituko dituen onarendako Bihotza, zabaldua dadukazun, Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Birtute guziak, eta lenenik beratx izatea, ta humiltasuna zere Bihotzean erakusten dezun Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

K. Eriotzak lurretik bota nai gaituenean, Zeruko hostaturako behar dugun ondasuna, ta grazia Bihotz orretan dakartzula, gugana etortzeko zauden Jesus maitagarria, galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu, zere Bihotzaren erdian.

K. Sakramentu andi orretan, munduaren bizitza, bizitzako arbola, gaistoen Bitarteko, onen biztura, ta sekulako bizitza zaran Jesus maitagarria, emendik aterazen garanean, sekulako galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatu zere Bihotzaren erdian.

AÑA. Inproperium expectavit cor meum, & miseriam, & sustinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.

V. Discite á me, quia mittis sum, & humilis corde.

R. Et invenietis requiem animabus vestris.

OREMUS

Domine Jesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiae Sponsae tuae singulari dilectionis beneficio aperire dignatus es, concede propitius, ut gratiis coelestibus, ex hoc dulcissimo fonte manantibus, corda nostra



ditari, ac recreari mereantur, qui vivis, & regnas in saecula saeculorum,
Amen.

NERE JESU-KRISTO ERRAN ONDOAN ERRAN BEHAR DEN OTOITZA

Jesusen ANIMA, birtutez bete nazazu.
Jesusen BIHOTZA, amorez erre nazazu.
Jesusen GORPUTZA, salba nazazu.
Jesusen ODOLA, amorez zora nazazu.
Jesusen Bihotzeko URA, garbi nazazu.
Jesusen IZERDIA, grazizko bizitzaz bete nazazu.
Jesusen PASIONEA, indartsu egin nazazu.
Nere JESUS ONA, adi nazazu.
Zure LLAGETAN, zure BIHOTZAREN erdian gorde nazazu.
Ez nadiilla ni etsaien eskuetan ERORI.
Nere ERIOTZEKO horduan dei nazazu.
ZEREGANA eraman nazazu.
Zure SANTUEKIN alaba zaitzadan beti sekula guzian.
Bai arren, bai.

KONGREGAZIOAN SARTZEAN, TA URTEORO EGIN DITEKEN OTOITZA

Aldareko Sakramentuan zauden, nere Jesus maitagarria, zuri zor dizudan amoreari errantzuteko, ta nere oben kulpen zorpetik atera naiez, sartu naz, zuk zerorrek nai dezula, zure BIHOTZEKO Eskolan, edo Kongregazionean. Eskerrak nik zuri onenbat zure ontartez. Ontart, edo fabore onen alde, ta gañerako zor dizudan guziagatik, egin uste dut gaur-gero nik, Kongrenazione bereko Erreglak eskatzen dutena: ta, dagidan, utsegin bage, eman behar didazu zere eskua, zere laguntza, ta grazia. Bai arren, bai.

MEZAREN ENZUN-BIDE LABUR-ERRAZA

Zenbat-ere ondasunduna den MEZA (den bezala), MEZA da mehatze baten erako gauza bat. MEHATZEAK, naiz dela urre-gaiezkoa, ez du aberastuko nior, hura zulatu, ta ateratzen ezpadu ango urre gaia, edo, meha; ez eta MEZAK ere, MEZAKo ondasunak billatzen, ta ateratzen ez dituen. Gelditzeko bada bat aberastua, MEZAN arkitzen diran ondasunekin, billatu beharko ditu MEZAKo ondasunak.

MEZAKo ondasunen billa-bidea da, MEZA bera, behar den eran entzutea. Ala zuk hau entzuteko, egiozu zere Jangoikoari zere entzun aldian, entzuten dezun MEZAREN PRESENTA; ta denbora berean egiozkatzu Jangoiko berari mill esker; bein zeren egiña zaduzkan bere Zerurako, gero zeren atera zinduen zere bekatupetik, gero egin dizkitzun, ON, ta ontarte guzien alde; ta azkenean eska zagozu, ONGI bizitzeko grazia. Eta egizu zuk hau guzia emen arkituko dezun eran, oberen bat zuk ikasi artean.

§. I. MEZAREN ASIERATIK EBANJELIORAÑO, JANGOIKOARI ESKERRAK EMATEA, ZEREN BERE ZERURAKO EGIÑAK GADUZKAN GU

MEZAREN asieran, len ezpazaude, belaunikatuko zara; ta, norekin hitzegite-ra zoazen, ta zer eman gogo diozun, gogon arturik, egin behar diozu zere agur humill bihotz guztizko bat zere Jangoiko maitagarriari; ta, Nere Jesu-Kristo Jauna, &c. erran ondoan, esan behar diozu bihotzez, edo eme-emeki, ta, zure aldakan daudenak, aditzen etzaituztela, nasi ez ditzazun zuk oriek horduko beren egitekoan.

ETERNIDADE guzian bakarrik egondu zaran, nere Jangoiko maite, AITA, SEME, ta ESPIRITU Santua: deusen beharrik bein ere ekusi ez dezun, ta gloriz beterik beti, beti arkitu izandu zaran zorioneko nere JAUN ezin doatsuagoa: ezer-ezetik Zeru-lurra, itsasoko bazterrak, eta gañerako gauzak atera zenituen, ta ni ere era berean atera ninduzun, Egille ezin-altsuagoa: Zeru-Lurra, itsaso guziak, eta gañerako bazterrak,



eta gauzak zere izatez, zere egotez, ta zere iduitez beretzen dituzun Jaun andia; ta, oriek guziak bete, ta ere, egingarriak arkitzen diran gauza guzien betegarri gelditzen zaran, Izate bazterrik bagekoa: ta, egin dituzun gauza guziak nere onagatik egin dituzuna, ta ni, nere beharrik gabe, zeretzat, eta zere glorian iduki naiez, zere ANTZ-IDURIRA, edo aintzur ederrera egiña nadukazun, nere Jaun EGILLE ezin-obe-maitagarriagoa, zer ez dizut nik zor zuri zere JAUN-tasunagatik, eta, zuk niri eman didazun ADIMENTUzko, ta NAIMENDUzko nere izate on onen alde?

Zer zorko ez dizut nik, nere JAUN on ezin-ongilleagoa? Zor dizut, bai, nik, nere begiz, nere buruz, nere oñez, eskuz, ta bihotzez nik egin ala; baita, Zerukoak, eta Lurreko guziak elkar arturik, egin lezaken, guzi-guzia baño, agitz, eta agitz geiago ere!

Zer egin dezaket bada nik nol-ere-bait nere ZOR andi oni erantzuteko; ta zure JAUN-tasunari dagokan, PRESENT on bat egiteko? Ez dut onetarako, bide bat baizik. Bidea da, asia dagon MEZ ori, ematen hari denaren eskuz zure eskuetan nik uztea: bada MEZAN or arkituko da gure JESUS maitagarria; ta JESUS da bakar-bakarrrik, nere zor andi hau estaltzeko, aski den, ta, zu bezalako Jaun baten diñako PRESENTA.

Orra, bada, non dezun nere naiez, ta gogoz, nere JANGOIKO-egille ezin andiagoa ta izan dedilla zure izenean, edo honran, ta zeren egin ninduzun ni zuk ezer-ezetik, eta betiko zere glorirako. Or PRESENT orretan ekusiko dezun JESUSek dizula, dezakenak bezala, nik zuri, Zerurako eman didazun, nere izate onen alde zor dizudan laudarioa, ta gañerako guzi-guzia. Bai arren, bai.

Hau erran, eta EBANJELIOA bukatu artean ez dezu gogotik utziko zere lenbiziko zor andi hau; ta bihotzez esain diozu; zuk Jangoiko maitagarriari, al dezun, guzi-guzia.

§. II.

EBANJELIOTIK SAGARARAÑO, JANGOIKOARI ESKERRAK EMATEA, ZEREN BEKATUPETIK ATERA GINDUEN GU

Ebanjeliotik sagararaño zere gogorako dezu zere BEKATU guzien zor andia; ta esain diozu, zere obenez aserretu zenuen, ta BEKATUpetik atera zinduen, zere JANGOIKO altsu on-maitagarriari.

Nere AMAreñ sabelera nintzaneko ni, nere JAUN on egille, guztiz maitagarria, bekatuaren loipean arkitzen nintzan, ta zure etsai-galgarri egiña, ta al-ere zuk, nitaz zu urrikaldurik prestatu zenidan, ni lurrera horduko, nere garbibidea, edo BATAIOA. Bataio berean zuk niri kendu zenidan nere bekatu etorkiaren loi guzia; ta denbora berean eman zenidan zere GRAZIA, zere ADISKIDetasuna, ta zere Zerurako BIDEA!

Baña zerbait azi, edo azkartu horduko, esker-gabe galdu bat egiñik arkitzen nintzan ni; ta ez nion nik begiratu ere zure Bataioko ontarte, edo fabore eder andi oni edo begiratze arin bat edo beste egin, ta laster kendu nituen hartatik nik nere begiak; eta galdu nituen, zuk niri zere BATAIO-AN emanikako ondasun andiak, eta sartu ere nintzan ni, nik neronek, nere naiez egiñikako bekatu berrien loi itsusi galduetan: ta sartu izandu nintzan ni, zuk, nere JANGOIKO maitagarriak, dakizun adiña aldiz, ta bider!

Eta non arkitzen ote naz ni egungo egun berean ere? Nere bekatu itsusien loipean? Zure etsai galdu-gogor egiñik, eta betiko suleзера, edo infernura beharra? Agitz beldur naz beintzat, nere JAUN andi, nik orrenbatetan bortizki aserretua!

Ala arkitzen banaz ni, nori nik eskatuko diot, nere bekatupetik aterako banaz, beharko dudan, askua, ta laguntza? ZURI, zuri, nere Jangoiko maitagarriari; zuri, bai, zuri, nigatik, ez izan arren, MEZ orretan ekus-teko zauden, zere Seme-Jangoiko gizon ezin-obe-a gatik!

Nere bekatupean, laguntz hau bagez, gal ez nendin ni, egin izandu zuen zure SEME on orrek, zuk zerorrek dakizun adiña; ta badakizu zuk, zure SEMEAK eginikako gauzarik txikienak ere balio duela, nik eskatuko dizudan laguntzak adiña, ta anitz eta anitz geiago ere.

Eskatzen dizut, bada, nere Jangoiko maitagarria, zere esku-laguntz indartsu hau, atera nadin ni lenbaitlen, kontrizonez, onezko damuz, edo Konfesione zuzen behar bezalako batez, nere bekatupetik, baldin bekatupean arkitzen banaz ni; ta atera nadin bidenabar, nere bekatu berak, Purgatoriorako, edo nere nekez, ta lan onez, emen ateratzeko, iutzi dizkidaten zor andi-txiki guzietatik. Eta ESKATZEN dizut nik zuri hau guzia, MEZ orretan JESUSek agertuko dizkitzun bere ODOL-isurtze, NEKE gogor, ta gure amoriozko ERIOTZAgatik. EZ NIRI ukatu zuk hau; ez, nere JANGOIKO maitagarria; ez arren ez!

Hau esan ondoan, ezaguturik zuk, zu ongi, ta bekatuik bage ekusi naiez, dela JESUSen etorrera, eska zagozu, datorkizula, bekatu orietatik zu, urrun baño urrunago betiko uztera.



§. III.
SAGARATIK KOMUNIONERAÑO,
JANGOIKOARI ESKERRAK EMATEA,
GEREN BIZIAN EGIN DIZKIGUN ONTARTE
GUZIEN ALDE

Mez-emalleak Sagarako hitzak erran, ta bein HOSTIA, ta gero KALIZA agertzen dizkitzunean, zuri adirazten dizu, an dezula zuk zere JESUS, Zerutik jaitsi berria; egin behar diozkatzula zuk JESUS berari bere agurrak, eta ongi-torri alik onenak; eta, artarako bere baimena eskatu ondoan, eman behar diozkatzula beraren Aita maitagarriari urrengo eskerrak.

Orra non dezun, nere JAUN andia, nigatik GIZON egin zen zure Seme Jangoiko JESUS guztiz maitagarria! Orra or arkitzen da MEZ orretan, orain Zerutik etorri berria; ta etorri da, len nik zuri adirazi dizudana-gatik, eta gañerako nere zorren alde. Anitz da, bai, ni sortu nintzaretik, orain arteko nere denbora guzian nik zuri, nere Jangoiko maitea, zor izandu dizudana; zor dizut alabaña nik, nere lenbiziko bekatutik, sulezeko, edo infernu bereko neke tormentuz urratzen, ta lertzen ni ez arkitzea, Aingeru bekatariak, eta beste gaistoak arkitzen diran bezala. ZURI zor dizut nik, geroztik izandu dudan osasuna, ta ondasun guzia. ZURI zor dizkitzut nik, zugandik artu ditudan adiña Zeruko adirazte, ta gogargi. ZURI zor dizkitzut nik, noizean beingo nere bihotzaren biguintasunak, eta ondu-naiak (zorionekoa ni, aldi orietan egin banu nik, zuk hordu orietan niri adirazten zenidana!). Eta, hitz bitara bildu dezadan nere zugarako zor guzia, zuri zor dizkitzut nik, Sakramentu Santu bakoitzean, nere Etxean, Elizan, ta non nai, zugandik nik artu ditudan nere Animako ta gorputzeko onak, eta ondasun guziak; eta ez dut bat, zugandik artu ez dudarik.

Andia da, bada, bai, nere JANGOIKO guztiz emallea, onenbat, neronek ezagutzen ditudan, ta gañerako zuk dakizkitzun zure ondasunak, eta ontarte guziak eskatzen duten, eskerra, ta PRESENTA! Baña guziari erantzun arte diot nik (zuk orien alde artu nai badidazu), orain nik MEZ orretan egiten dizudana: bada or PRESENT orretan arkituko dezu zuk, nik artu dudan guziak baño geiago, ta geiago balio duen zure Seme maite JESUS maitagarria. Artu zazu, bada, oraindañoko nere zor guzian alde, kito geldi gaitezen zu, ta ni biok.

Ez da, JAUNA, zer begiratu emallearen txarkereari, begira egiozu, dakardan PRESENT andi eder ezin-obeari; begira egiozu PRESENT beraren, edo gure JESUSen amore ezin-andiagorri; bai, ta oraingo nere bihotzaren aldarte onari ere. Bai arren, nere JANGOIKO maitea, bai.

Gero prestatuko dezu zuk zere barrena gogozko komuniorako, eskatuz zere JANGOIKOari zere gaizki guzien barkamentua, ta JESUSen AMArena bezalako siniste, uste, ta maitatze andi bat.

Eta MEZ-emallea komuniatzean, komuniatzen baziña bezala, egiñen diozu agur andi bat HOSTI Santari; ta eskatuko diozu, an arkitzen den JESUS maitagarriari, dizkitzula, zure barreneratzen baliz adiña, ondasun, grazi, birtute, ta laguntza: ta egiozkatzu gero eman dizkitzunen esker humillak.

§. IV.
MEZAKO KOMUNIONETIK MEZA BUKATU
ARTEAN,
JANGOIKOARI ESKATZEA, ONGI BIZITZEKO
BEHAR DEN GRAZI, TA LAGUNTZ GUZIA

Adirazi dugun, gogozko Komunione hau egin ondoan, esan behar diozu zuk zere JAUNGOIKOari.

Eskerrik asko, nere JANGOIKO maitagarria; bada, nik orain uste dudana, artu didazu zuk, nere zorren alde, egin dizudan MEZ onen PRESENTA. Ez dakit nik, nere zor guzian alde, nola, edo zer eran artu didazun zuk ori: baña badakit, bai, oraingo aldian ni zerbait zorrek in gelditzen banaz ere, berriz ta berriz nik zuri nere MEZEN presentak egiñaz (egin uste dizkitzudan bezala), atera dezakedala, gelditzen zaidan zor ori ere.

Ora in nik dudana, beldur guzia da zor berriak egitea, egin bagez nik, egin behar diran eran, nere gain arkitzen diran egitekoak, eta gauzak.

Orietatik batean ere nik ez uts-egiteko, edo guzi-guziak zuzen egiteko, behar dut nik, nere Jangoiko maitagarria, zure grazi-zati andi bat, eta zure laguntza.

Emain al didazu zuk hau, nere JAUN andia, zeren zaran zu, zaran bezain ongillea, ta JESUSen Aita maitagarria?

Badut uste; ta nere uste osoan eskatzen dizut nik orain hau; ta eskatzen dizut, JESUS bera arteko arturik. ZURE laguntz indarsu onekin



egiñen dut nik zuzen bizitzera; maitatuko zaitut nik emen zu, alik ongie-na; ta, emen baño ere obeki, ta biziroago, doatasunez, ta gloriz beterik arkitzen den zure Zeruan. An ekus zaitzadala nik, nere Jangoiko maite AITA, SEME, ta ESPIRITU Santua, emendik atera horduko, ta Sekula guzi-guzian! Bai arren, bai.

Zuk era onetan zere MEZAK entzutera, aterako zara, bai, zu zere zorpetik, aberastuko dezu laster zuk zere Anima; bada andiak izanen dira, aldian zuk MEZAtik aterako dituzun zor-paguak, eta ondasunak.

Era onetan MEZA enzutea ez da, dakusazun bezala, orrenbateko nekea; ta egunoro ori zuk, edo al dezun egunetan neke txar hau ez artzeagatik, ez da zer galdu, orrek dakarken ondasuna, ta irabazia. IRABAZI onen zatirik txikiena ere, lurreko irabazi guziak baño agitz geiago balio duen irabazia da; ta ekusten dezu, emengo irabazi txikiak gatik gizonak emen egiten dutena.

Irakurtzen, edo leitzen ez dakitenak ere, adituz ikus dezakee MEZA-ren enzuera labur erraz hau: ta, ikasi ezker, badute, gogoia barriatu gabe, MEZAN egoteko behar dutena.

Ez dauden, bada MEZAKoan, gogoz barriatuak, edo eroen eran, ta zertan dauden ez dakitela, erakutsi behar diezu zuk zere humeei, zere itxekoei, ta al dezun beste guziei MEZAREN enzuera hau, oberen bat baldin ezpadakizu.

Zure lan onek (zuk hau artzera) emain die, bai, emengo ikasle gaisoei bide ondasundun aberats bat; eta Zeruko guziei atsegin-kontentu andia: ta egunen batean ekusiko dezu, lan berean zuk zerorrek irabazten dezuna.

ERROSARIOKO AMARREKOEN ASIERA

Errosarioa erran dezakezu, edo *Aita gure - Abe Mariak* diotenari gogoz, ta bihotzez laguntzen diozula; edo amarreko bakoitzean zerbaite geiago gogoan arturik, artarako irakurtze, edo leitze laburren bat lenik egiten dezula. Zer ote? Librutxo berri onetan arkituko dezuna, edo zerbaite orrelako.

Emen arkituko dituzu irur aldetarako gogorazioak, edo gogorazioetarako gauzak, eta Misterioak. Lenbiziko lekuan arkituko dituzu Misterio orietatik bost, Jesus-en Amari, Jesus anditu arteko denboran gertaturikakoak. Bigarrenak dira, Jesus anditu, ta ill artean Jesus-en Amari gertatuak; eta azkenekoak dira, Ama berari geroz gertaturikakoak. Lenbizikoak dira *Hastelen-ostegunetako* Errosariorako: bigarrenak *Hasteart-ostiraletarako*; ta irurgarrenekoak *Hasteazken-Larunbat-Igandearako*. Asi gaitezen lenbiziko-etatik.

HASTELEN-OSTEGUNETAKO ERROSARIOA Atseginezko Misterioak

Ziñatu, ta errazu:

**LENBIZIKO MISTERIOA:
Jangoikoaren Enkarnazioa,
edo Jangoiko Semea Ama Birjina baitan
gizon egiñik gelditzea**

Jesusen Ama maitea, zere bakartasunean arkizen ziñan zu, Aingeru San Gabrieleke erran zizunean: *Agur Maria, graziaz bete, Jauna da zurekin; bedeikatua zu Andre guzien artean*. Han hark erran ondoan adirazi zizun, zu, Espiritu Santuaren Birtutez, ta milagroez, Jangoiko Semearen Ama egiñik geldituko ziñala; ta ala ere, len bezain Donzella, ta Birjina.

Hau zuk aditzean, izandu zenuen atsegin andiaren izenean dira oraingo gure AITA-GURE hau, ta amar ABE MARIK. Guk oriek esan artean, eska zagozu zere Seme Jangoiko-gizonari, digula guri geren gauzak zuzen, garbi, ta berak nai duen eran egiteko, beharko dugun laguntza, ta grazia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.



BIGARREN MISTERIOA:

Birjin Amaren Bisitazioa, edo Santa Isabel *ekustea*

Jesusen Ama maitea, Jangoiko Semeak bere gizatasuna zure baitan artu, ta laster joan ziñan zu, zere Aide Sant ISABEL ekustera. Hari zu an hitz-egiten asi horduko, egin zituen, sabelean zedukan bere humetxo San JUAN BAUTISTAK atsegin andizko ibillerak. Hordu berean, ezagutu zuen onen Ama Sant ISABELek zure baitan gertatzen zena; ta deitu zin- duen zere izenez JANGOIKOAREN AMA.

Aldi hartako zure atsegin andiaren izenean dira oraingo gure AITA GURE hau, ta amar ABE MARIAK. Eta, oriek guk esan artean, erditsi behar diguzu, geren bidez gu zuzen ibiltzeko, ta gure Jaunarekiko esker- dun onak izateko, beharko dugun laguntza ta grazia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

IRURGARREN MISTERIOA:

Jesusen *Jaiotza*

JESUSEN Ama maitea, bederaz ill-beteren buruan jaio zen zugandik Jangoiko-gizona; ta jaio zen, Aingeru onak zuri erran bezala, edo zu Don- tzella, ta Birjin gelditzen ziñala. Jaiorik hura zuk ekusi horduko, egin zeniozkan, al zenituen ongi-etorri ta agur guziak; eta gelditu ziñan zu, ezin-geiagorañoko atsegin-kontentuz bete.

Jesus jaio berriaren, ta horduko zure atsegin andiaren izenean dira oraingo gure AITA GUREA, ta amar ABE MARIAK. Oriek guk erran artean, erditsi behar diguzu, zure Jangoiko-aur jaio berria, guk ziñez mai- tatzeko, ta gure Jaunari atsegin egiñen dion guzia zuzen egiteko grazia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

LAURGARREN MISTERIOA:

Ama Birjinaren Purifikazioa, edo *Jesusez Amak Ait Eternoari egiñikako Presenta*

JESUSEN Ama maitea, Lege zarrak ziona zuzen egin naiez, etziñan Elizan sartu zu, zere erdizetik berrogei egun igaro artean. Bitarte orretan ezagutu zuten JESUS beren Jangoikotako Zeruko Aingeruak, mendiko Artzaiak, eta urrutiko Erregeak; eta orrekin zu Elizan sartzean, hordu berean an arkitzen ziran, SIMEON, gizon Santua, ta ANA Profetisa zeri- tzan Andrea.

Ori guzia zuk ekustean, ta zere Seme Jangoiko-gizonaren Presenta Aita Eternoari egitean izandu zenuen atsegin andiaren alde dira, oraingo gure AITA GUREA, ta amar ABE MARIAK. Oriek guk erran artean, erditsi behar diguzu, gure Jangoikoa guk ongi ezagutzeko, ta geren buruen present on bat Jangoiko berari guk egiteko beharko dugun grazia ta laguntza guzia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

BOSTGARREN MISTERIOA:

Jesus gaztetxoari ELIZAN agitua, edo gertatua; ta AMAREN hura an arkitzea

JESUSEN Ama maitea, irur eguneko bidea bazen, zure Erritik JERU- SALENGO Elizara; ta ala ere ara zuk eraman zenuen zere Semetxo JESUS, JESUSEK amabi urte zitueneko. Zuk nola etzenekiela, JERUSA- LENEN gelditu zen JESUS, zu andik zere etxera itzulzean. Ara berriz joa- nik, an arkitu zenuzten JESUS zuk, eta San JOSEPHek, ango Doktore jakintsuen artean, oriei, Ait-Eternoak nai bezala, gald-erantzute zuzen arrigarriak egiten.

JESUSEN arkitze onek eman zizun atsegin andiaren alde dira azke- neko AITA GURE hau, ta amar ABE MARIAK. Erditsi zaguzu zuk, oriek guk esan artean, atsegin osoarekin, goizdanik, eta zuzen guk geren gauzak egiteko grazia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

Letania

Kyrie eleyson.
Christe eleyson.
Kyrie eleyson.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Pater de Coelis Deus,
Miserere nobis.
Fili Redemptor mundi Deus,
Miserere nobis.
Spiritus Sancte Deus, Mis. n.
Santa Trinitas unus Deus, Mis.
Sancta Maria, Ora pro nob.
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,



Mater divinae gratiae,
 Mater purissima,
 Mater castissima,
 Mater inviolata,
 Mater intemerata;
 Mater amabilis,
 Mater admirabilis,
 Mater Creatoris,
 Mater Salvatoris,
 Virgo prudentissima,
 Virgo veneranda,
 Virgo praedicanda,
 Virgo potens,
 Virgo Clemens,
 Virgo fidelis,
 Speculum justitiae,
 Sedes Sapientiae,
 Causa nostrae letitiae,
 Vas spirituale,
 Vas honorabile,
 Vas insigne devotionis,
 Rosa mystica,
 Turris Davidica,
 Turris eburnea,
 Domus aurea,
 Foederis Arca,
 Janua Coeli,
 Stella matutina,
 Salus Infirmorum,
 Refugium Peccatorum,
 Consolatrix Afflictorum,
 Auxilium Christianorum,
 Regina Angelorum,
 Regina Patriarcharum,
 Regina Prophetarum,
 Regina Apostolorum,
 Regina Martyrum,
 Regina Confessorum,
 Regina Virginum,

Regina Sanctorum omnium
 Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, Parce nobis Dñe.
 Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, Exaudi nos Dñe.
 Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, Miserere nobis.

OREMUS

Gratiam tuam, quaesumus; Domine, mentibus nostris infunde, ut
 qui, Angelo nunciante, Christi Filii tui Incarnationem cognovimus, per
 Passionem eius, & Crucem ad Resurrectionis gloriam perducamur. Per
 eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

HASTEARTE-OSTIRALETAKO ERROSARIOAREN ASIERA Nekezko Misterioak

LENBIZIKO AMARREKORAKO MISTERIOA:

Jesusen Jetsemaniko IZERDI odolezkoa

Jesusen Ama maitea, andia zen, bai, JETSEMANIKO baratzean zure
 Seme JESUSEk izandu zuen bihotzeko estutasuna, ta nai-gabea; bada gure
 bekatuez, ta orien alde artzeko zegoen, neke arrigarriez oroitzeak utzi
 zuten, lurreraño zerion odolezko izerditan zena bustia!

Jesusen horduko izerdiaren alde bada, ta zuri izerdi beraz oroitzeak
 eman izandu zizun, neke arrigarriaren izenean dira oraingo AITA GURE
 hau, ta amar ABE MARIAK. Oriek guk erran artean, erditsi behar digu-
 zu, guk izaten ditugun, neke-naigabe-damu guziak Jaunaren izenean, ta
 eme-emeki eramateko; beharko dugun laguntza ta grazia. Bai arren, Bitar-
 teko maitea, bai.

BIGARREN MISTERIOA:

Gugatik JESUSEk artu zituen azot-ukaldiak

Jesusen Ama maitea, bazenekien zuk, azkeneko bere egunetan zure
 Seme JESUSEk eraman beharra! Zer naigabeak, bada, zureak, zere gogoz,
 edo animako begiz zuk ekusi zenuenan, azoteka Borreroak JESUSEkin
 egin izandua, ta nola hura, oriek an askaturik utzi ondoan, oñen gañean
 ezin egonez, erori zen illa zirudiela bere odol-istillean, ta nola zebillen,
 ezin jaikiz, ta bere soñekoan billan, bere burua nol-ere-bait estali naiez.



JESUSen horduko neke arrigarrien alde, bada, ta zure naigabeen ize-
nean oraingo gure AITA-GURE hau, ta amar ABE MARIAK. Erditsi
behar diguzu zuk JESUS beragandik, orrenbat neke ar-erazi dioten gure
obenen barkamentua, ta, oben berririk egin bage, zuzen bizitzeko grazia.
Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

IRURGARREN MISTERIOA:
JESUSen ARANZeko KOROAIZIOA

JESUSen Ama maitea, JERUSALENGo Borreroak, beren azot-
ukaldien lan gogorra bukatu horduko, ezarri zioten Jesusi, dakizun beza-
la, elor-arantzezko koro arrigarri bat bere loetan, ta buru minberean; ta
ezarri zioten, anitz lekutan zulatzen, ta oñazez betetzen zutela.

JESUSen horduko neke andi, ta zure urrikarizko naigabeen alde,
Ama Birjina, oraingo gure AITA GURE hau, ta amar ABE MARIAK.
Oriek guk erran artean erditsi behar diguzu, gaur-gero guk ongi bizitze-
ko, beharko dugun laguntza ta grazia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

LAURGARREN MISTERIOA:
JESUS Gurutzea SOÑEAN daramala

JESUSen Ama maitea, andiak izandu ziran, bai, zure bihotz minbe-
reko kezka, eta tristurak, zuk ikusi zenuenean JERUSALENGO kalee-
tan zere Seme maitagarria arantzez josia, azotez urratua, Gurutze astun
bat soñean zuela, ta erorka; ta alere, hartaz urrikaldu beharrean, neke
geiagotan hura, ta lenbaitlen Gurutze berean illik ekusi naiez, Borrero
gogorrek egiten zutena!

Era orretan zuk zere Seme JESUS ekustean izandu zenuen, neke
arrigarriaren izenean, ta orretarako bidea eman duten gure bekatuen alde
dira oraingo AITA GURE hau, ta amar ABE MARIAK. Oriek guk erran
artean, erditsi behar diguzu, bekatu berririk guk ez egiteko grazia. Arren,
Bitarteko maitea, bai.

BOSTGARREN MISTERIOA:
JESUSEN Gurutzeko ERIOTZA

JESUSen Ama maitea, Galbarioko mendira zeneko kendu ziozkaten
zure Seme JESUSi Borrero gogorrek, an arkitzen ziran guziak begira
zegozkala, bere soñekoak; berritu ziozkaten bere gorputzeko llagak, eta
zauriak: berak zeraman Gurutze berean josi ziozkaten illtze lodi-luzez
bere bi eskuak, eta bere oñak; eta utzi zuten gero airean, anitz aldetatik
odola zeriola, ta oñazez zena lertzeko eran.

Ori guzia zuk ekustean izandu zenituen naigabe parerik gabekoen
izenean, ta gure Animen onerako izan ditezela oraingo gure AITA GURE
hau, ta amar ABE MARIAK. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

Kyrie eleison. Pagina 73.

HASTEAZKEN-LARUNBAT-IGANDEETAKO
ERROSARIOAREN ASIERA

Asitzean, ziiñatu, ta erazu.

Jesus biztu-ondoko misterioak

LENBIKOA: JESUSEN BIZTEA, TA
HAREN AMAREN HORDUKO ATSEGIN ANDIA

JESUSen Ama maitea, zure Seme JESUS Gurutzean ill horduko,
bukatu ziran JESUSen nekeak, gelditu ziran garaituak JESUSen etsai
guziak, eta jaitsi zen JESUSen Anima gloriz beterik, eta Aingeruz inguru-
tua, ABRAÑen presondegira, edo Linbora; ta ango Animak berekin artu-
rik igan zen andik irurgarren egunean, bere gorputza zegoen obira; sartu
zen gorputz berean; biztu zen sekulako; ta agertu zitzaizun, ezin adirazi
ditezkeen, argitz, ta edertasunez betea, ta ingurutua.

Era onetan zuk hau ekustean izandu zenuen atsegin andiaren ize-
nean, ta gure Animen onerako izan ditezela oraingo gure AITA GURE
hau, ta amar ABE MARIAK. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

BIGARREN MISTERIOA:
JESUSen ZERURATZEA, ta
Amaren horduko ATSEGIN andia

JESUSen Ama maitea, biztu, ta ondorengo berrogei egunetan ager-
tu zien, zure Seme JESUS maitagarriak bere Apostoluei, oriek jakin behar
zutena. Egun orien buruan erran izandu zien, bidalduko, edo igorriko
ziela Zerutik, bere graziz, ta indarrez beteko zituen, Espiritu Santua; ta
hau erran ondoan, guziak begira zegozkala, ta guzien artean zu, JESUS
beraren Ama maitagarria artu zuen JESUSEk Zeruko bidea, ta igan zen,
gelditu gabe, bere Aitaren eskoieko aldera. Horduko zure atsegin andia-



ren izenean, ta gure Animen onerako izan ditezela, oraingo gure AITA GURE hau, ta amar ABE MARIAK. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

IRURGARREN MISTERIOA:

Espiritu Santuaren etorrera, ta

Ama Birjinaren horduko ATSEGIN andia

JESUSen Ama maitea, Espiritu Santuaren etor-hordua etorri-horduko, etorri zen hau, Apostolu Jaunekin, ta beste anitzekin zu zeunden tokira, ta utzi zinduzten zu, ta oriek bere doaiez, jakiunde, graziz, indarrez, ta birtutez guztiz beteak.

Horduan zuk izandu zenuen atsegin andiaren izenean, ta Espiritu Santu beraren doaiak guk ere erdisteko dira oraingo AITA GURE hau, ta amar ABE MARIAK. Erditsi ditzagula, bada, guk ere, zure artez, Espiritu beraren Esposa maitea. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

LAURGARREN MISTERIOA:

Ama Birjinaren *Zeruratzea*

JESUSen Ama maitea, etzenuen zuk bekaturik izandu, bekatarien eran, eritasunez iltzeko. Ill ziñan, bada, zere Jaunaren amorioz! Igan zen Zerura zure Anima, zu ill ta bereala, gorputzik bage; ta andik laster, edo fite, bere gorputzarekin batean; ta igan ziñan zu, argitz, ta edertasunez bazterrak arritzen zenituela; ta, Zerutik begira zegozkitzun Aingeruei galderazten zeniel; *Zein ote da*, munduko basotik datorren, ta bere Seme maite Jangoiko gizonaren besoan besoa ezarria dakarren ARAKO hura?

Horduko zure atsegin andiaren izenean dira oraingo gure AITA GUREA, ta amar ABE MARIAK. Erditsi behar diguzu, emengo geren nekezko basoan, zuzen ibiltzeko ta zure bide beraz Zerura gero gu igateko, beharko dugun laguntza ta grazia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

BOSTGARREN MISTERIOA:

Birjin Amaren Zeruko *KOROAZIOA*

JESUSen Ama maitea, ez da Jangoikoaren esku altsutik atera (ez eta aterako ere), zure Anima bezain Anima-doatsurik; bada Jangoiko berak eman dizkitzu zuri, Zeruko ta Lurreko beste guziei baño grazi, doai, ondasun, ta birtute agitz geiago: artu zaitu zu bere alde-aldera; ta Zeruko tokirik oberenera; egin zaitu zu bere Aingeruen, ta gañerako guzien Erregegin ezin andiagoa: ta azkenean eman dizu zuri, nai dezun guzia non nai, ta noiz-nai egiteko eskua.

Zeruko zere Koroazio, ta esku aberats onen izenean dira oraingo gure AITA GURE hau, ta amar ABE MARIAK. Erditsi behar diguzu, emen gu ongi bizitzeko, ta Zeruan gero guk zu ekusteko, beharko dugun laguntza guzia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.



JESUSEN BIHOTZAREN BEDERATZ-URRUNA

Jangoikoaren eskuan daude, guk behar ditugun ondarte ta gauza guziak. Ez digu ukatuko bat, hau guk eskatu ezkeru JESUSEN BIHOTZEKO amore-nekeen izenean. Eska dakiok nola ere nai; ta guztiz ederki, JESUS berari Bederatz-urrun bat egiten zaiola. Hau zuk egitean, egiozu zerbait Present on, edo birtutezko gauza. Orrelakoak, dira konfesa-komekatzea, Eriren bat ekustea, ta A. S. Ignazioren Bederaz-urruna baño len arkituko dituzun gauzak.

BEDERATZ-URRUNAREN ASIERA

Kristo Jauna dagoen Aldarera begira zaudela (Elizan bazaude), edo haren Bihotzaren, edo beraren beste edozein Imajinaren oñetan ziñatu, ta errain dezu: *NERE JESU-KRISTO JAUNA, &c;* ta gero,

EGUNOROKO LENBIZIKO OTOITZA

Ondasun guzien Jauna, ta jabea zara zu, gure Jesus maitagarria; ta gu gara, zuk dakizun bezala, errumes behartsu-zordun gaiso batzuek; eta zugana gatoz, gere bekatu guzien zorrak ateratzeko, ta geren gauzak zuzen egiteko, beharko dugun ondasun, laguntz, eta grazi guziaren eske. Iguzu, bada, zuk hau guzia, gugatik ezpada ere, zere Bihotzeko amore-nekeak gatik, Bai arren, Jesus maitea, bai.

LENBIZIKO EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Animen Artzai ona zara zu, gure Jesus maitagarria, ta gu gara ardi txar galdu errebesak; eta, orregatik gara, zure belar onak, edo erranak utzirik, ibilli garanak geren bekatu gaistoen sasian, ta, su-lezeko otso-tza-

ren artean. Geren ibillera gaistoz ongi damaturik, gatoz gaur zure oñetara: emen zuri humilki eskatzera, eskatzen dizugun bezala, ar gaitzatzula orain zuk zere BIHOTZAREN maitatzalle on, ardi garbien artean, ta gero, oriekin batean, zere Erreinuko glorian. Bai arren, Jesus maitagarria, bai.

Jesusen Bihotzaren su-argi-garrak, Gurutzeak, eta Arantzak aditzera ematen dituzten amore-nekeen izenean irur AITA GURE, ta ABE MARI.

EGUNOROKO IRURGARREN OTOITZA

Gure JESUS maitagarria, agitz oztuak arkitzen dira, lurreko gizonen bihotzak, eta, Zeruko amorez oriek berotu naiez, agertu diguzu zuk, zere BIHOTZAREN debozione ederra. Gu ere lurreko bihotz otz-dun orietatik gara, ta otz-otzean ill beharrak, zuk gu zere BIHOTZ orretan ez berotzera. Bero gaitzatzu, bada, zuk, zere BIHOTZEKO amorearen suzati on bat ematen diguzula. Eta iguzu bidenabar, baldin guri dagokiguna bada, orain guk nai genuen, ta, zugandik uste dugun beste guzi ere. Bai arren, Jesus maitagarria, bai.

Eska zagozu Jangoikoari, Jesus-en Bihotzeko amore-nekeak gatik, nai dezun hau, *ta esazu gera.*

AÑA. Improperium expectavit Cor meum, & miseriam, & sustinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.

V. Discite á me, quia mitis sum, & humilis corde.

R. Et invenietis requiem animabus vestris.

OREMUS

Domine Jesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiae Sponsae tuae singulari dilectionis beneficio aperire dignatus es, concede propitius, ut gratiis Coelestibus ex hoc dulcissimo fonte manantibus corda nostra ditari, ac recreari mereantur: Qui vivis, & regnas in saecula saeculorum. Amen.



BIGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Hume txar esker-gabe gaistoak gara gu, gure Jesus maitagarria; bada, egin beharrak, guk egin lekuan, egin ditugu, zuri atsekabe gogorrek eman dizkitzuten anitz gauza, ta txarkeri. Egiñaz damaturik arkitzen gara gu; ta orren barkamentua erditsi naiez. Iguzu arren zuk hau zere BIHOTZEKO amore bazter-bagekoagatik; eta bidenabar iguzu zuk, uts berririk ez egiteko, ta zure maitatzalle onen eran bizitzeko, bear-ko dugun zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai.

IRURGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Gugana guztik aserre dago, Jesus, zure Aita maitea. Aserretu zaiku, guk zuri egin dizkitzugen txarkeriak gatik. Barkatuko dituzulako, ta zere Aita palakatuko dezulako uste osoarekin arkitzen gara gu. Egizu zuk bata ta bestea, zere Bihotzeko amore andiagatik, eta iguzu, ez zure Aita, ta ez zu berriz guk aserretzeko grazia: bai ta, orain eskatu uste dizugun beste guzia ere. Bai arren, bai.

LAURGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Berandu bad-ere, ezagutu dugu, gure Jesus maitagarria, gugatik dirala zure BIHOTZAREN tristurak, eta gañerako nekeak. Neke-tristura oriek zuri, guk egin alean, arindu naiez gaude: iguzu zuk, orretarako guk beharko dugun zure eskua ta laguntza: iguzu gure kulpen ziñezko damu bat: Iguzu kulpa berririk ez egiteko grazia; bai ta egun eskatzen dizugun, beste guzi-guzia ere. Guzia eskatzen dizugu zure BIHOTZAK gugatik artu dituen naigabe guzien izenean. Ez bat ere guri gaur zuk ukatu: ez arren, ez.

BOSTGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Geiegi nai diguzu zuk, gure Jesus maitagarria; ta ez da, gugatik zuk ekusi ez dezun bidegaberik; bada gugatik artu zaituzte zu preso, gugatik urratu zaituzte zu zere burutik oñetaraño; ta gugatik, Gurutze batean josirik kendu dizute zuri zere bizia. Zein andia, zure BIHOTZARI guk orretan zor diogun amorea! Iguzu nola-erebait oni guk erantzuteko, bear-ko dugun zure laguntza ta grazia. Bai ta orain eskatu uste dizugun beste guzia ere. Bai arren, bai.

SEIGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Zere Gurutzetik ekusi zenuenean zuk, Jesus maitagarria, begira zegokizun, zere Ama maitea, itsasoko ur gaziak baño gaziagoak ziran, zuen BIHOTZetako estutasun-neke-tormentuak: horduko bien tormentu gazi gogorrek gatik, eman behar didazu, nere nekeen artean, behar bezala egoteko grazia; ta orain eskatzera noan guzia. Bai arren, bai.

ZAZPIGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Ikas dezagula, diozu zuk, gure Jesus maitagarria, zure BIHOTZAK erakusten digun beratasuna ta ixillera. Iltzera daramaten ardia bezain ixil, ta humill igan ziñan zu Kalbarioko mendira; ta, an, zere Gurutzean iltzez josirik zeundela, ezpañak erabili bazenituen, izandu zen, zure etsaien alde zere Aitari hitz-egiteko. Hitz-egiozu orain ere, ta eska zagozu, digula guri guziori, zurea dirudien bihotz ixil, manso, humill bana; ta gañerako, guk behar dugun guzia. Bai arren, bai.



ZORTZIGARREN EGUNEN BIGARREN OTOITZA

Zure atsegin ta gustoa dela, diozu zuk, gure Jesus maitagarria, anima garbien artean bizitzea; orregatik gelditu zara zu gurekin Aldareko zere Sakramentuan. Zorionekoak, garbiro, ta askotan zugaratzen diranak! Indazu niri, zureari darion uretik nere bihotz hau garbitzeko, behar dudana, ager nakizun ni maiz, atsegin ori or nik zuri egitera, ta nere anima hau aberastera: ta indazu, orain ni eskatzera noakizun beste guzia ere. Bai arren bai.

BEDERATZGARREN EGUNEN BIGARREN OTOITZA

Indazu, erraten dit nire nere Jesus maitagarriak, indazu, nere semea, zere bihotza. Ez dit eskatzen geiago, nigatik egin, ta eraman duen guziaren alde. Zeñ ona, zeñ maitagarria den guretzat gure Jesus ona! Gaur-gero zuri nola nik uka nere bihotz hau, edo bihotz osoz zu, ta ziñez maitatzea? Indazu orretarako beharko dudana grazia, ta Bederatz-urrun onetan eskatu dizudan beste guzia. Bai arren, bai.

JESUSEN BIHOZ MAITAGARRIARI

Gure gusto, gure atsegin,
gure JESUS maitea:
*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Gure obenak, gure loiak
lenik kendu behar dira;
ura zara, ken itatzu,
galdu gara bestela.
Badakigu, zaudela
gure amorez betea.

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Etzeuden bakarrik loiak
gure bihotz gaistoan;
busti, ta ur egiña dago
bekatuen kutsuan.
Garbia da, idor dago,
JESUS ona, zurea.

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Argiaz dago beterik;
Jesus, zure BIHOTZA;
illunbean da gurea,
elurra bezain otza.
Emen gatoz, ager zazu
zugarako bidea.

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Noizbait noizbait arkitu dut
bular ori idikia!
sartuko naz, ar nazazu
BIHOTZean guzia.
Egon behar ez ote dut
nik or beti gordea?

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Zure suak, zure garrak
aut-segiñen naute ni?
geroztik egoin ninzake
amorez urtzen beti.
Jesus, zu zaran ezkerro
gure animen labea.



*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Hau zer da? zer pena dira,
dituzunak barrendik?
Zure BIHOTZA utzi dute
dena nekez beterik!
Zein andia zein latza
daramazun nekea!

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Zure BIHOTZA arkizen da
lantzaz erdiratua:
nere kulpen burdiña da
lantz erdiratzallea.
Damuz autsi baledike
nere barren tristea!

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Arantza zorrotzak baizik,
ez dezu nere eskutik:
nere kulpen arantzekin
dena zaude odolturik.
A ni baldin banengo
negar, damuz ase!

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Gure kulpak egin dute,
Gurutze sendor ori;
ezartzen diote kulpak
zure BIHOTZ onari.
Kulpa gaisto, ta oben gogor,
oben kulpa nerea!

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Zer nai dezu? zertan zaude,
Jesus ona Aldarean!
txarkeriak artzen dago
amorezko lekuan!
Txarkerien pena nai du,
nai du gure amorea.

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*

Ez dut behar maitatu,
Jesus, zure BIHOTZA!
artu behar ez dut nik
zure nekeen damua!
Eske nator, zabal zazu
sarbideko Atea.

*Zere BIHOTZEKO suan
erre zazu gurea.*



JESUSEN AMAREN BEDERATZ-URRUNA

Gure Jaun emalleak nai du, dio S. Bernardok, guk ar dezagun, berak ematen digun guzia BIRJIN AMAREN eskutik; eta orregatik nai du, gu izatea AMA berarenak, edo guk egitea gog-oso, zuzen ta maiz, BIRJIN AMARI dagozkan deboziozko gauzak.

Oriek era orreran guri eragin naiez, urteoroko berezi dizkigu, gure Jaun emalle-maitagarriak Birjin Amaren emezortzi egun, edo Festa, gutiengan; ta orietatik zenbait beren Zortzi-urrunarekin, edo Zortzi egunekoak; eta JESUSEN Festak ere, zenbait beintzat, AMA BIRJINAREN Festak dirudite; bada AMA ere an arkiku oi da Fest orietan, bere Seme maitarekin batean.

Ori ez-ezik, anitz igandetan, urteko anitz egunetan, ta Santuen anitz Festetan ere Elizak gure guzien izenean, otoitz egiten dio Birjina berari; edo, hau arteko arturik, Jangoikoari; eta Elizan ematen diran MEZA guziak ere ematen dira, Jangoikoaren izenean ez-ezik, Birjin Amaren honran ere: ET IN HONOREM B. MARIAE. Elizaz kanpoan ere nai du gure Jangoikoak, oroi gaitezen gu maiz-maiz beraren AMA maitagarriaz; ta, guri geren egiteko hau gogorazteagatik, soñarazten du Eliz-ezkilla goiz-arratsetan, eta eguerdian, gugatik onen baitan Jangoiko bera gizon egin zela, gogoan artuz, erran ditzagun aldian irur ABE MARI. Eta ori obeki guri eragin naiez, Aita Santuak berezi ditu egiten dutenendako, guk len (pag. 13.) adirazi ditugun, induljenziak. Onenbat nai du gure Jangoiko maitateak, gu beraren AMAGANATZEA, guk haren AMAREKIN anitz debozio-ne izatea; ta Jangoiko berari eskatzen dioguna ere, guk eskatzea, AMA hau Bitarteko arturik, eta Amari ere otoitz egiten diogula.

Zenbaitetik, hau obeki egin naiez, artu oi dituzte noizean-bein, Birjin Amaren ohoretan, edo honran zenbait egun, orietan, bera Arteko arturik, eta beraren izenean zenbait gauz on egiten dituztela, Jangoikoari zerbait eskatzeko. Orretarako artzen dituzten egunak, batzuetan geiago dira, besteetan gutiago; baña geienean izan oi dira bederatz; ta orregatik denbor oni deitzen zaio BEDERATZ-URRUNA, edo *Nobena*.

Euskaldunen artean etzen arkitzen, egun orietarako izan oi diran libruetatik bat ere; ta orregatik moldatu dizut, orain ekusten dezun hau. Emen arkituko dituzu, egun orietan egiten diranotoitzak, edo eskaerak.

Asierako egunean arkitzen diran *lenbizikoa*, ta *irurgarren* Otoitza egunoroak dira: ta bigarrena aldatzen da egunoro. Egunoro aldatzen den, bigarren otoitzak ukitzen du bere *MISTERIOA*. Lenbizikoak *KONZEPZIOA*, edo Birjin amaren *Grazia*z *beterikako Asiera*: bigarrenekoak beraren *NATIBIDADEA*, edo *Jait-eguna*: irurgarrenekoak *PRESENTAZIOA*, edo Birjinak bere-buru-zen guziaz *Elizan* Jangoikoari egiñikako *PRESENTA*: laugarrenak *ANUNZIAZIOA*, edo, Birjinak berak nai zuela, onen baitako Jangoikoaren *Gizon egitea*: bostgarrenekoak *BISITAZIOA*, edo Birjin Amaren Santa ISABEL ekustera joatea: seigarrenekoak *ESPEKTAZIOA*, edo Birjin Amaren bere Seme Jesus *Jaiorik* ekusi-naia: zazpigarrenekoak *PURIFIKAZIOA*, edo Seme beraren *Present* ederra Elizan Ait Eternoari *Egitea*, ta Elizan orretarako *BIRJIN Ama* garbia, Ama bekatati erdi-berrien eran *Agartzea*: zortzigarrenekoak *DOLOREAK*, edo Birjin Amak, Semearen Pasione Santako denboran, eraman zituen, barreneko *Nekeak*; eta azkeneko bigarren otoitzak ukitzen dito *ASUNZIOA*, edo Birjin Amaren eriotza, beraren *Zeruratzea*, ta guzien *Erregein* eginik an gelditzea.

MISTERIO, edo Ama Birjinaren *FEST* orietatik edozeñetan, ta nai badezu guzietan, egin dezakezu zuk zere *Bederatz-urruna*. Misterioko egunetan egin gogo badezu, asiko dezu zortzi egunez lenagotik, misterioko egunean bukatzeko; edo misterioko egunaren bezperarik, buka dedin misteriotik zortzigarren egunean. Misterioko egunak ez izan arren, badagikezu zuk zere *Bederatz-urrun* hau; ta egin dezakezu, estutasunen batean arkitzen zaranean, biziera berriren bat arteko zaudenean; zere Jaunagandik zerbait erditsi nai dezunean, edo Ama Birjinari atsegin ori egin nai diozunean, ta zere gauzetarako beharturik, edo Bitartek-on eginik utzi nai dezunean.

Baña, zere *Bederatz-urrun* hau egiten dezunetan, egin behar dituzu *Mez-enzuteak*, *Errosarioak*, *Aldareetako otoitzak*, *libruetan irakurtzeak*, eta bertze zere gauzak, gañerakoan baño kontuzago ta obeki; ta egin behar dituzu, beste egunetan egiten ez dituzun bertze zenbait ere, edo dirala barurak, edo edozein erako hildurak, eta mortifikazioneak, edo urrikarizko, ta karidadezko gauzak; eta gutiengan errazkitzu, orain bereziko ditudan ABE MARIK: goiz-arratsetan *IRUR*, Jesusen Amak erditsi diezazun zere Jaunagandik, bein egun guziko, ta gero gabeko zere gauzak zuzen egiteko grazia. Horduoro *BAT*, erraten dezula, artara baño len; *HORDU* batez laburtu da nere bizitza; ta zer dakit nik, irauen duen urregorano? Zer gerta ere, lagun zakizkit, Ama Birjina, obenik bage nere Jauna serbitzen: *ABE MARIA*. Etxetik ateratzean: *NOIZ* etxerako naz, ta



NOLA? Izan dedilla, Jesusen Ama maitagarria, hordu onean, ta pausu makurrik egiten ez dudala: *ABE MARIA*. Lanean asitzean: Izan dedilla lan hau, nere *AMA BIRJINA*, Jaunaren ohoretan, ta nere onerako: *ABE MARIA*. Errazu berebat jatean, edaterakoan, etzitera zoazenean, batetik bestera aldatzean, igatean, jaistean, hitz egitera zoazenean, ta egun orieta-ko beste edozein gauzetan. Egiteko onek etzaitu anitz nekatuko, ta maiz eramain zaitu zere Bitarteko on *BIRJIN AMAGana*.

EGUNOROKO ASIERA

Elizan, edo al dezun lekurik onean, belaunikaturik, ziñatu, ta Nere Jesu-Kristo, &c. erran ondoan, errazu:

Jesus onaren Ama maitagarria, ta bekararien Bitarteko ezin-obeia, nere Jaunari eskatzera nator, zuri zere Bederatz-urrun onetan adiraziko dizudana; ta, baldin Jaun beraren honrari dagokana bada, ta nere onerakoa, erditsi behar didazu, dezakezunak bezala; ta orrekin batean, erditsi zadazu, nere lanak zuzen egiteko, beharko dudan laguntza ta grazia. Bai arren, bai.

LENBIZIKO EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Adan bekatariagandik guri datorkigun bekatuak ukitu etzinduen zu, Jesusen Ama Birjina. Jangoikoak zu egin horduko, utzi zizun zere Anima graziz, doaiez ta birtutez guztiz apaindua; ta Jangoiko berak laguntzen zizula, obenik bage, bizitu ziñan beti zu, ill arteko zere denbora guzian. Orretan zuri egin zizun, on andiagatik, erditsi behar diguzu gure Jangoiko beragandik, guk geren bataiotik onaraño egin ditugun bekatu guzien barkamentua, ta berriz gu bekatu bage, bizitzeko grazia: bai ta, bederatz-urrun onetan eskatzen diogun, beste guzia ere. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

Egunoro Bigarren Otoitzaren ondoren, irur ABE MARI, aldi artako misterioaren honran, edo izenean.

EGUNOROKO IRURGAREN OTOITZA

Urrikaltasunez beterik arkitzen zaran JESUSen AMA maitagarria, oroi zaitez zu, ez duela orain-dañoan aditu niork, utzi dezula zuk, lagundu gabe, zere lagunzaren eskean etorri zaitzunik. LAGUNTZA beraren eskean nator ni gaur; ta, emain didazulako, uste osoarekin nator. Ona bada ni zure oñetan belaunikatua, errumes behartsu baten eran, ta zeren nere Jaun ona aser-erazi nuen, naigabez ongi bete! ASER-erazi nuen nik nere Jaun hau nere kulpaz. Nere kulpen barkamentua nai nuke nik, eta kulpia berririk ez egiteko grazia. LAGUN zakizkit zu nere egiteko on onetan; bai ta erdisten ere, eskatzera noakion, gañerako guzia, baldin hau bada, beraren izenari, zure honrari, ta niri ongi dagokigun gauza. BAI arren, Bitarteko maitea, bai.

Isillik agertzen du bakoizak, erditsi nai duena, ta eskatzen dio bere Jangekoari, BIRJIN AMA Bitarteko ematen diola.

EGUNOROKO BUKAERA

AÑA. Beata Dei genitrix Maria, Virgo perpetua, templum Domini, Sacraium Spiritus Sancti, sola sine exemplo placuisti Domino nostro Jesu Christo.

v. Dignare, me laudare te, Virgo sacrata.

R. Da mihi virtutem contra hostes tuos.

OREMUS

Concede, quaesumus, omnipotens Deus, ut fideles tui, qui sub Santissimae Virginis Mariae protectione laetantur, eius pia intercessionibus à cunctis malis liberentur in terris, & ad gaudia aeterna pervenire mereantur in Coelis. Per Christum Dominum nostrum Amen.

BIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Jesusen Ama maitea, zu zere jaiotzetit zara gure artizar eder bat bezala; bada artizarra da, eguzkia baño len agertzen zaikun goizeko izarra; ta zu zere jaiotzetik agertu ziñan, bekatuaren gau illuna mundutik kentzera zetoren eguzki JESUS baño len. IZAN zatez bada goiz-arrats,



eta beti gure Animen IZAR argigillea; ta lagundu behar diguzu gure Jau-nagandik erdisten, gaur guk eskatu uste diogun guzia. BAI arren, Bitarteko maitea, bai.

IRURGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Jesusen Ama maitea, irur urte zenitueneko, *Jerusalengo* Elizara ziñan zu, zere Jangoikoak an zuri adirazten zizun guzia zuzen egitera. *Ezagutu* dut nik zere goizdanikako Elizaratze, edo PRESENTAZIO onetan erakusten diguzuna, ta egin naiez nago, nere Jangoiko berak adirazten didana; ta, dagidan nik hau, utsegin gabe, erditsi behar didazu, orretarako beharko dudan laguntza ta grazia; ta eskatzen diodan guzia ere. BAI arren, Bitarteko maitea, bai.

LAURGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

JESUSEN Ama maitea, Jerusalengo Elizan ezezik, toki guzietan ere humiltasunez beterik arkitzen ziñan zu; ta ongi arritua gelditu ziñan, Jangoikoak bere Aingeru San GABRIELEZ eskatu zizunean, zure baitan, edo zugar gizon egiñik gelditzeko baimena. HORDUKO zere baimenaren alde artu zenituen doai, ta ondasun andiak gatik, erditsi behar didazu, nere Jaunagandik, berak niri adirazten didana zuzen egiteko grazia; ta orain eskatzen diodan guzia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

BOSTGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Jesusen Ama maitea, Jainkodun eginik gelditu ta laster, artu zenuen zuk zere Aide santa ISABELen Etixerako bidea; ta, zuk hau ekustean, kendu zion zere barreneko seme JESUSEk, onek bere sabelean zedukan San JOAN BAPTISTARI bere bekatu etorkia, edo orijinala. Zure seme beragandik uste dugu guk edozein gauza, hau zuk hari eskatu ezker.

ESKA zagozu bada guri dagokigun on guzia. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

SEIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Andia zen, bai, Jesusen Ama, Isaiasen, eta beste Profeten Jesus ekusi-naia: baña agitz andiagooa zen zurea; bada, oriek baño, obeki zenezien zuk, nor zen JESUS, ta JESUSEn erortzetik zetorkiguna. Zuk len izandu zenuen, ta Jesusen jait-hordurako agitz anditu zen ekusi-nai one-gatik, erditsi behar diguzu Zeruan guk Jesus bera beti ekusteko nai andi bat, orain guk eskatzen dugun beste guziarekin batean. BAI arren, Bitarteko maitea, bai.

ZAZPIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Elizan ekusten zaitut gaur, Jesusen Ama maitea, zere Seme JESUS berrogei eguneko besoan, ta Legeko ofrenda eskuan daramazula; ta orrela zu Elizara zara, zere Semearen Presenta Aita Eternoari an egitera; ta guri erakusteagatik, eraman ditzagula goizoro guk ere egun guziko geren ASMOAK, HITZAK, eta LAN on guziak. Erditsi behar diguzu, ori guk zuzen egiteko grazia ta gaur eskatzen dugun beste guzia. BAI arren, Bitarteko maitea, bai.

ZORTZIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gurutzean josirik zegoen JESUS zure Seme Jainko gizonaren ondolan, urrikarizko nekez ta oñazez beterik zeundela zu, AMA Birjina, artu ginduzun zuk gu zere humetako, San JOAN Ebanjelariarekin batean. Milla esker guk zuri, onenbat faboregatik. Erditsi behar diguzu, oni guk erantzuteko grazia, ta orain guk eskatzen dugun guzia. BAI arren, Bitarteko maitea bai.



BEDERATZIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Zuk, Jesusen ama maitea, bukatu zenituen amoriozko eriotz batekin lurreko zere egunak: igan ziñan zu zere Semearen aldera; ta or arkitzen zara gorputz eta anima, Zeru guziko Erregin egina, ta atsegin-kontentuz agitz betea. Zure Seme berak or zaduzka zu, orrara daraman bizitz on bat egiten guri laguntzeko. Lagun zakizkigu, bada, orretarako behar den grazia ta guk nai dugun beste guzia erdisten. BAI arren, Bitarteko maitea, bai.

Nai dezuna badezu,
Birjin ama maitea;

*Izan nadin ohea,
Laguntz anitz indazu:*

Zikindu zen Mundua
Adanen bekatutik;
Birjin Ama bakarrik
gelditu zen garbia.
Batayoz utzi dugu
Adanen loi galdua;

*Izan nadin ohea,
Laguntz anitz indazu.*

Zer ote da, nolakoa,
Ama zure grazia?
Asitze beretik da
edozein arritzekoa.
Jainkoak utzi zaitu
ondasunez betea.

*Izan nadin ohea,
Laguntz anitz indazu.*

Zara Jaunak egiña
munduaren onetako,
eman dizu orretarako
behar dezun guzia.
Gero berak artu du,
behar zuen bidea.

*Izan nadin ohea,
Laguntz anitz indazu.*

Gabriel bidaldurik
baimenaren billara,
zu baitan gelditu da
Jainko-gizon eginik.
Zere pean or dezu
Erregen ERREGEA.

*Izan nadin ohea,
Laguntz anitz indazu.*

Jainkoaren Ama zara
Jainkoaren ALABA;
gure alde zu bazara
ongi doatsuak gara;
Jainkoak egin zaitu
gure ERREGIÑ andia.

*Izan nadin ohea,
Laguntz anitz indazu.*

Jainkodun ta BIRJINA
izan ziñan noizbait zu;
hume Jaink-egin dezu
ta al ere zu BIRJINA.
Beti beti BIRJIN zu,
BIRJIN Ama maitea;

*Izan nadin ohea,
Laguntz anitz indazu.*



Bularrez azi dezu
 Jainko-gizon zerea;
 zure emanegoz gosea
 hark askotan kendu du.
 Soñezkoz utzi dezu
 era onean jauntzia.

*Izan nadin ohea,
 Laguntz anitz indazu.*

Igit-artera badoa,
 doa zure besoan;
 sartuko ba-da ELIZAN
 zurekin batean doa.
 Zurekin JESUSEK du
 bere biz-ibillia.

*Izan nadin ohea,
 Laguntz anitz indazu.*

Gurutzean josia
 ill zenean SEMEA,
 an zen nekez betea
 onen AMA BIRJINA:
 onek bihotzean du
 haren pena-nekea.

*Izan nadin ohea,
 Laguntz anitz indazu.*

Guzien Erregiña,
 Zeruan egin zaitu;
 or Jaunak eman dizu,
 zegokizun KOROA.
 Orrekin artu dezu
 jabetasun gurea,

*Izan nadin ohea,
 Laguntz anitz indazu.*

Alaber egin zaitu
 gu guzien Arteko;
 eman dizu orretako
 nai adiñ indar ta esku.
 Ongi aski badakizu
 gure behar gabea:

*Izan nadin ohea,
 Laguntz anitz indazu.*

Erregin manatzalle,
 Zeru-lurren jabea,
 bihotzez naz zurea,
 hitz gogoz eskatzalle;
 ez niri zuk ukatu
 gaur eskatzen dudana.

*Izan nadin ohea,
 Laguntz anitz indazu.*



S. IGNAZIO LOIOLAKOAREN BEDERATZ-URRUNA

EGIN BEHAR DUENARI

Santuren bat bitarteko sartzan zaionean, eman oi ditu gure Jangoi-koak, Jangoiko berari zuzen eskatzen zaizkanean, ukatzen dituen zenbait gauza. Orregatik Jangoikoagandik zerbait nai dugunean, askotan beinbat, Jangoiko beragana baño, lenago goaz gu Santuren batengana. Eta zeren zenbait bider Santuak ere lenbizian ez aditu egiten diguten, berriz, ta geiagotan joaten gara Santu beretara; ta eskatzen diegu, gerta dakizkigula bitarteko onak gure Jangoikoarekiko.

Era onetako eskaerak irauten dute egunen batzuez; ta izenik, edo otsiz andiena dutenak, bederatziz.

Bederatzi egunez irauten duten eskaerei deitu dakieke Bederatz-urrunak.

Guziena lagunduko diola, deritzan Santuari egiten dio bakoitzak egun orietako bere eskaera, Bederatz-urruna, edo Nobena.

Batekin baño, besteekin geiago ez dutenendako badira, guzien artean, zenbait Santu, orretarako jaiok diruditenak.

Orien artean konta diteke LOIOLAKO Aita San Ignazio, ta onen seme San Franzisko Xabier, ta San Luis Gonzaga; bada irurak izandu dira beti gure Jankoikoarekiko esku andizko Artekoak.

Bederatz-urruna, egin diteke, edo Librutik, edo Librurik bage. Libruz ez dakienak, edo Librurik ez duenak, bakarrik egin nai badu bere bederatz-urruna, esan ditzake bederatziz egunez egunoro, Bitartekotz artzen duen Santuaren izenean Irur, Bost, Bederatzi, edo deritzan, Aita gure Abe Mariak.

Irakurtzen, edo Libruz dakienak, emen arkituko du, nola egiten den Santu bakoitzaren bederatz-urruna.

Euskaldunen hitzera guziak ez dira bat bazter guzietan. Zerea ez bezalakoa emen arkitzen dezunean, utzazu hau, nai badezu, ta artu zazu, haren lekuan, zerea, edo obeki deritzazuna.

Onak izanagatik leku ta toki guziak, behar duguna guk gure Jangoi-koari eskatzeko, Elizak dira Jangoiko berak orretarako berezi dizkigun tokiak; eta orregatik, al dezunean, egizu zuk Elizan zere Bederatz-urruna.

Elizara ezin bazoazke, egizu zuk zere itxean zere Bederatz-urruna, edo bakarrik, edo zere etxeko guziekin batean; guziak elkarri laguntzen diotela, bakoitzak atera dezan obeki bere Jaunagandik, erdits nai duena.

Besteak egiten dutenean, edo bakarrik zuk bein egiñagatik zere Bederatz-urruna, egin dezakezu zuk urte berean, nai dezun aldi guzietan, edo zere debozioko Santuaz behartzen zaranean: ta zenbat geiagotan hau zuk egiten diozun, anbat behartuagoa idukiko dezu zuk zere Santua, zere premietan, ta zere gauzetan zuri laguntzeko.

Zere Santuaren laguntza hau zuk zereganatzeko, egin behar dituzu zuk Santu beraren alde, ta zere onerako, orain nik bereziko dizkitzudan gauzetatik al dituzunak.

Lenbizikoa da konfesa komekatzea Bedaratz-urrunaren asieran, edo beste egunetatik edozeinetan; bihotz garbi batekin, ta komunioneke indarrarekin obeki egiteko zuk zere gauzak.

Bigarrena da, Santuak egin oi zituen, gauzetatik zenbait egitea. Orietatik dira Barurak ateratzera, Jangoikoaren izenean neke guziak emeki eramatea; gaizki dabilzanak Zeruko bidera zuzen-eraztea, ta, gure Jangoikoa gogoan arturik, ibiltzea.

Irurgarrena da, premian, beharrean, edo estutasunen batean arkitzen diranekin, eri dauden gaisoekin, tristuraz, naigabez, ta illuntasunez betirik arkitzen diranekin, bai ta Purgatorioan erretzen dauden Anima onekin ere urrikarizko zenbait gauza on egitea.

Laugarrena, erne ibiltzea, Jangoikoaren Legean utsik ez egiteagatik. Onetan anitz lagunduko dizu, izan oi dituzun berriketak uzteak; baita zere begi beharriez, ta mihiaz kontu andi bat egun orietan idukitzeak ere.

Bostgarrena: ongi begiraturik hitz egitea. Ala zuk egiñen dezu egun orietan, zuk hitz egitera Santuei dagozten, ta ongi bizi diranak egiten dituzten gauzetan.

Bederatz urruneko egunak Santuaren egunak dira; ta dira, haren izenean goizetik arratseraño kontuz igaro behar diran egunak. Onela zuk igaro nai badituzu, entzun beharko dezu goizoro zere Meza: Meza da ala-baña, lurrian dugun gauzarik andiena, ta geiena gure Zeruko Aitak nai duen presentia.

Lekurik badezu, irakurri zazu zenbait denboraz Santuaren bizitzan, edo beste Libru onen batean.

Errosarioa, ta gañerako zere debozioak egin behar dituzu egun ebe-tan, lenagokoetan baño kontu geiagorekin.

Eguna zuk ongi bukatzeko, etzin baño, len artuko diozu zere bihozari, egin dituen gauza guzien kontua. Ongi egiñez, orietan lagundu dizu-



nagatik, eskerrak emateko zere Jangoikoari: ta gaizki egiñaz damu, ta urriki andi bat artzeko, urrengo aldian utsak ateratzeko asmo ta gogo zuzenarekin.

Aspaldian, edo beñere egin ezpadezu, egun onak dira, Bederatz-urruneko egunak, konfesione jeneral edo betiko bat egiteko.

Pozik lagunduko dizu zuri Santuak ori egiten; ta egiten badezu zuk ori, Santu beraren izenean, beste edozein gauza on adiña, edo agian geia-go estimatuko dizu.

Nai zenuen gauza gabe arkituagatik zu, zere Bederatz-urruna egin ondoan, ez dakizula iduri, denbora galdu bestetik egin ez dezula, hura egi-tean. Bere humeari ongi nai dion Aitak ez dio ematen oni, onek eskatzen dion kanibeta, edo, ez dagokan gauza; ta, haren lekuan ematen dio, behar duen janaria ta gauza.

Zer behar dugun guk, eta zer den, gure onerako, edo gaitzerako den gauza, guk baño obeki dakien Jauna da gure Jangoikoa. Bide onez guk eskatzen dioguna, ukatzen digunean, galdu ez gaitezen, da gure Jangoikoa-aren ukaera; ta, eskatzen diogunaren ordañez, ematen digu geren eska-aldietan, on egingo digun gauzaren bat edo beste; ta ori da guk beti eska-tu bear duguna,

LENBIZIKO EGUNEAN EGIN BEHAR DENA

ZIÑATU, TA NERE JESU-KRISTO JAUNA, &c. ESAN ONDOAN, EGUNORO LENBIZIKO LEKUAN EGIN BEHAR DEN OTOIZA

Ekarri zenuen zuk, Aita S. IGNAZIO, gure JESUSen Konpañia, zere Jaunaren glori andirako, ta munduko gaisoen onerako. Emen bizi ziñanean, lagundu oi zenien zuk, eskatzen zizuten guziei. Orain Zeruan zu, len bezain urrikaltia zara; ta, gutaz urrikalturik, eskatu bear diozu gure Jangoikoari, gaur guk agertu uste diogun guzia, ta zuk zerorrek deritzazu. Bai arren bai.

LENBIZIKO EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Andia zen, bai, Aita San IGNAZIO, zure *siñiste ona* ta *fedea*; bada, hau baño, lenago utziko zenuela, zenion, zere bizia. Zere bizi guzian egin izandu zenuen zuk zere al-egiña, siniste bera, ta fedea ar-erazteagatik, etzuten guziei. Zere lan onetan zuk Jesusi eman zenion atsegin andia-gatik, erditsi behar diguzu Jesus beragandik gure Misterio guzien *siniste bizi sendor* bat; baita egun eskatu behar dugun beste guzia ere. Bai arren, bai.

Orain, A. San Ignaziok Trinidadeko Personekin izandu zuen debozioaren izenean, irur Aita gure, ta Abe Mari.

EGUNOROKO IRURGARREN OTOITZA

Jesusen Konpañia bildu zenuen zuk, Aita S. Ignazio, munduko guziak Zerura zuzendu naiez. Zeru berean gero sartzeko, zuzendu nai nuke nik ere nere bihotz hau nere Jangoiko maitagarriagana, ta eskatu nai niotzake, zuzentz onek eskatzen dituen zenbait gauza; baita, nere animaren galgarriak ezpadira, beste zenbait ere; ta guztiak uste ditut, zuk niri oriek erdisten lagundu ezker: lagun zakizkit bada nere lan onetan. Bai arren, nere Bitarteko maitea; bai.

Zenbait denboraz egin zara, Aita San Ignazioren izenean, Jangoikoari eskatzen, eskatu uste diozun guzia.

AZKENEAN EGIN BEHAR DEZU, A. S. IGNAZIOK, JANGOIKOARI EGIN OI ZION OTOITZA

Ona, Jauna, zure eskuetan uzten ditut gaur nik nere eskua, nere adimentua, ta nere nai guzia, edo borondatea. Ez dut nik, ez, zugandik artu gabeko gauzarik bat ere. Zurea da, bai, orain nik dudan guzi guzia. Guzia biurtzen, edo itzultzen dizut, nere Jabe onari bezala. Ez dut gaurego nik nai, zuri ez dagokizun gauzarik



bat ere, baña, zureak diran ezker nere gauza guziak, erakutsi behar didazu zuk, zer egiten den, oriek zuzen egiteko, edo nik zu ziñez maitatzeko; bada zinezko zure maitatze onetatik dator guk geren gauzak zuzen egitea, ta sekulako gure gloria. Orregatik, bada, zu nik ziñez maitatze hau da, orain nik nai dudana, ta zuri eskatzen dizudana gauza guzia. Indazu bada, nere Jangoiko maitagarria. Bai arren, bai.

AÑA. Similabo eum viro sapienti, qui aedificavit domum suam supra petram.

V. Amavit eum Dominus, & ordavit eum.

R. Stulam gloriae induit eum.

OREMUS

Deus, qui, ad maiorem tui nominis gloriam propagandam, novo per Beatum Ignatium subsidio militantem Ecclesiam roborasti, concede, ut eius auxilio, & imitatione certantes in terris coronari cum ipso mereamur in Coelis. Qui vivis, & regnas in saecula saeculorum. Amen.

BIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko emalle on maitagarria, iguzu zuk gaur Aita S. IGNAZIOren izenean, S. IGNAZIOri zuk eman izandu zenion ustearen, edo esperanzaren erako *uste*, ta *esperanz* andi bat. Ezin siñistu zuen Aita S. IGNAZIOK, ukatuko zeniola zuk, eskatzen zizun gauzarik bat ere. Nik ere, ukatuko ez didazulako ustean, eskatzen dizut zere laguntza ta grazia; bai ta beste gauza bat ere. Indazu, bada, bata ta bestea: bai arren, nere Jangoiko maitagarria, bai.

IRUGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Andiak ziran, Aita S. IGNAZIO, zure birtuteak; eta etzen txikiena, zuk zere Jangoikoari zenion, onginaia ta amorea: Lagun zakizkit zu, erran oi zenion zuk berari, nik zu ziñez maitatzen; ta nere maitatze onen alde nik nai dudana da berriz, ta berriz, ta aldian, aldian baño obeki nik zu maitatzea. Erditsi behar didazu, Aita S. IGNAZIO, zere Jangoiko maite beragandik amore beraren zati andi bat, eta orain nik eskatzen diodan beste guzia: bai arren, Bitarteko maitea, bai.

LAUGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Maite zaituenak zu, gure Jesus maitagarria, *maite ditu zureak*; eta zureen maitatzalleak egiten ditu maitatze onak eskatzen dituen gauza guziak. Agitz maite zituen Aita S. IGNAZIOk munduko guziak; eta, al zuen guzian hari zen munduko berak zugana zuzen-erazten. Bere lan onetan eman zizun atsegin andiagatik, indazu niri zuk, nere Jangoiko maitea, nere al-eginean lan bera nik egiteko grazia, ta orain eskatzen dizudana beste guzia: bai arren, bai.

BOSTGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Arrigarria da Jesus maitagarria, zuk *isillik*, eta *pazienzia*n gugatik eraman izandu dezuna! Zugandik ikasi zuen Aita S. IGNAZIOk nola eraman presondegiak, kateak, makil-ukaldiak, ezhonrak, gose-egarriak, eta gañerako nekeak. Gugatik zuk, eta zure izenean Aita S. IGNAZIOk eraman zuenagatik, iguzu guri, guk geren nekeak eta estutasunak behar den eran artzeko, beharko dugun laguntza ta grazia: bai, ta, orain eskatu uste dizugun beste guzia ere. Bai arren, bai.

SEIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Bihotz garbiak maite dituzu zuk, gure Jesus maitagarria; ta, garbiro arki zedin Aita S. IGNAZIOrena, kendu zeniozkan aragiaren sukar ta tentaldi guziak, hartarako igortzen, edo bidalzen zeniola zere Ama Birjina. Birjin Ama beragatik, eta onek Aita S. IGNAZIOri ekarri zion animako garbieraren izenean indazu niri, nik zu garbiro, ta ziñez maitatzeko grazia, ta orain nik eskatuko dizudana beste guzia. Bai arren, bai.



ZAZPIGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Zure Aitak nai zuena baizik etzenuen nai zuk, gure Jesus maitagarria; ta zuk, eta zure Aitak nai zenuztena zen, gure Aita S. IGNAZIOk nai zuena. Zuk zere nai zuzen on onetan zere Aita eternoari, ta Aita S. IGNAZIOk nai berean zuri emanikako atsegin andiagatik, eskatzen dizut nik, beti zuk naiko dituzun gauzak zuzen egiteko, grazia, ta orain adiraziko dizudan beste guzia. Ez ukatu hau niri gaur zuk, nere Jesus maitagarria; ez arren, ez.

ZORZIGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Aberats izan zindezkela zu, gure Jesus maitagarria, nekeak nekeen gain, ta *beharra* besterik ikusi etzenuen zuk, emen bizitu ziñan denboran. Aita S. IGNAZIOk, zurearen iduriko bizitza nekezko bat egiteagatik, utzi zituen lurreko ondasunak, honrak, eta gauzak; eta, *a! zein zikiña iduritzen zaidan mundua bere gauzekin* (esan oi zuen), *Zeruaz, ta nik an uste ditudan atsegin-kontentuez oroitzen nazanean!* Nai nuke nik ere bide hau artu; ta indazu, onek eskatzen duen grazia. Bai arren, bai.

BEDERATZIGARREN EGUNeko BIGARREN OTOITZA

Gure Jesus maitagarria, seme onak bezala, maite dezu zuk zere Ama Birjina; ta agitz nai dezu, maita dezaten hau besteak ere. Guztiz ederki maitatu zuen, A. S. IGNAZIOk, eta bere maitatze onen alde erakutsi zion, Exerzizioetako Libru ederrean arkitzen den guzia. Aita S. IGNAZIOk zure Amari nai izandu zionagatik, iguzu guri zuk, gure Jesus maitagarria, *maitatasun ederraren Ama* hau guk ere zin-ziñez, ta beti maitatze-ko grazia; ta orain eskatzen dizugun beste guzia. Bai arren, bai.

A. S. IGNAZIOREN AMAR-URRUNA, EDO AMAR EGUNeko DEBOZIOEA

Aita S. IGNAZIOREN eguna baño lenagoko, edo, egun beraren ondorengo amar igandez Jangoikoaren honra, ta Santuaren izenean konfesatzen ta komulgatzen diranak, eta Jesusen Konpañiako Elizaren batean otoitz egiten dutenak irabazten dute *Induljenzia*, bein (bakoitzak nai duenean) *plenaria, edo osoa*; ta beste guzietan *zazpiña* urtetakoa, ta *zazpiña* berrogeietakoa. Benedictus XIV.19 Sept. 1757.
diaus XIB. 19. Sept, 175.7.

Badakizu, S. Ignazio,
Etsai anitz dugula:

(bai.

guziekin peleara
noiz nai aterako gara,
zu bazatoz gugana.

(ziñez.

Etzaude galzera uzteko,
billatzen zaituena:

(ez ez.

behartuko bazindugu,
euskaldunak uste dugu,
diguzun zuk eskua.

(bai, bai.

Izan ziñan zu Loiolan,
ez bein, bitan jaioa:

(bai, bai.

bein Soldadu mundurako,
urrengoan Zerurako;
len, ta gero Euskalduna.

(bai.

Soldadeska mundukoan
izan ziñan andia:



(bai, bai.
anditasun lurekoak
etziran deus, Zerukoak
jaitsi ezkerko zugana.
(ez, ez.

Non da gerra? non da etsaia
zu izutu zinduen?
(non? non?
armak, lanzak, suak, garrak,
etsai guzien indarrak
zure kontra zer dira?
(zer? zer?

Nondik nai, ta nai adiña
zetozela zugana;
(noiz-nai.
igesi nor-nai lijero
zijoan, artu ezkerko
zuk eskuan ezpata.
(bai, bai.

Artzeko zeunden Franzesak
Iruindarren Erria,
(bai, bai.
horduan zuk sartzen zara,
laster zoaz armetara,
ta arritzen da Franzesa.
(bai, bai.

Mukallak galduak zeuden,
galdurik Gaztelua;
(bai, bai.
zu bertan ez agertzera
muru sendor izatera,
sartua zen Franzesa.
(bai, bai.

Iruñeko, ta Españaiko
Gazteluak zer dira?
(zer? zer?
Munduaren laur bazterrak,
onen Erresum ederrak
daude zure kontua.
(bai, bai.

Negarrez beterik dago
zure deiez mundua:
(bai, bai.
nago, dio, ni galtzeko,
ta Infernua errotzeko,
ezpazatoz nigana.
(bai, bai.

Atoz, atoz, S. IGNAZIO,
atoz arren onara;
(laster,
bekatuak, herejiak,
munduko gaistakeriak
emen nere gain dira.
(bai, bai.

Errege-en Soldadeska,
utzazu bereala:
(bai, bai.
artu zazu Zerukoa,
hau da, bai, hau honrazkoa;
ez zuk orain dezuna.
(ez, ez.

Bala batek bota zaitu
murallatik lurrera:
(bai, bai.
Buru, ta ezurak austea,
trip-esteak urratzea
da ger onen saria.
(bai, bai.



Badu beste Soldadeskak
sekulako gloria:

(bai, bai.

hara gero zu zoazen,
ta zurekin gu goazen,
atoz, atoz onara.

(fite.

Sendatzera zu, S. Pedro
laster etorriko da:

(bai, bai.

bañ indarrak izain dira,
eramateko (begira)
Mundukoak Zerura.

(bai, bai.

Birjina dator uztera
zu birtutez jaunzia:

(bai, bai.

ori da orrek zu egitea
Soldadu, ta moldatzea
guganako bidea.

(bai, bai.

Ea, laster bildu zazu
Jesus-en Konpañia

(laster.

zu Kapitan bazaitugu,
erraz garaituko dugu
guk Infernu guzia.

(erraz.

Zure kartak len zeduzkan
Deabruak ikara

(bai, bai.

Infernuan oik sartzeko,
ta ondatuak gaur uzteko,
asko da zure izena.

(bai, bai.

Espanian, ta Italian
bada zure beharra:

(bai, bai.

Afrikako bazterretan,
Asian, ta Indietan,
ai! agerzen baziña!

(ai! ai!

Franzia, ta Germania,
Polonia guzia:

(ai! ai!

Flandes, Olanda, Hungaria,
Dinamarka, ta Eskozia
zer egin ote dira?

(zer, zer?

Inglaterra, ta Irilanda;
Turkoaren erria,

(ai! ai!

Suezia, Moskobia,
Tibet, Mogol, Tartaria,
Txina, Japon non dira!

(non? non?

Guziak, eta guziagok
dute zure beharra

(bai, bai.

Atoz bada laguntzera
diranei, ta eramatera
nai dutenak Zerura.

(zuzen.

Laguntzeko zuk guziei
ez da zer utzi Roma:

(ez, ez.

zure Seme Soldaduak
betoz ongi prestatuak;
ori laguntzea da?

(bai, bai.



Non nai ez egonagatik
Soldadu Nagusia,
(*zer da?*)

Soldaduak badabiltza,
Nagusiak darabiltza,
ta aien lana onena da.
(*bai, bai.*)

Españara betor Borja,
Kanisio Nortera,
(*betor.*)
betor Fabro Franzia,
Xabier Indietara,
betor Lainez Trentora.
(*betor.*)

Aita Antxeta, Aita Lizardi,
Aita Claver andia,
(*betor.*)
Acebedo lagunekin,
ta Montoya besteekin
betoz Amerikara.
(*betoz.*)

Hitz batean esain dizut
esan nai nukeana;
(*bai, bai.*)
Jaunak bidaldua zara
Semeekin zuzentzera
Mundu guzi-guzia.
(*bai, bai.*)

Ea bada; nai diozu
eman, behar duena?
(*eman?*)
Konpañia bana zazu
Munduan, ta bete zazu
Jesuitez guzia.
(*bai, bai.*)

SAN FRANZISKO XABIERREN BEDERAZ-URRUNA

Bederaz-urrun hau egiten denean Jesusen Konpañiako Elizan, irabaz ditezke Induljenziak; bat osoa, ta gañerakoak *zazpi urte, ta zazpitan berrogei egunekoak*. Guziak eskatzen dute Konfesa-komekatzea, ta Otoiza.

Otoitza egiten zaio Jangoikoari komunioneke egunean; ta egiten zaio, eskatzen zaiola, begira dezola amoriozko begiz bere Eliza maitagarriari; Gal ditzala munduko hereji gaistoak; ekarri ditzala Hereje guziak, eta Jentilak, beren oben-kulpak, eta biziera galgarria ezagaturik, gure Lege garbiko bizitzara; diela beren arteko bakea, ta elkar ongi artzeko grazia, gure Lege berean bizi diran Erregeei, ta Prinzipe guziei; ta diola Jesusen Bikario gure Aita Santuari bizitza luze bat, eta osasuna; eta egiten da otoitza hau, Bederatz-urruna den Jesusen Konpañiako Eliza berean.

Hau egiten bada Bederatz-urrunaren azkeneko irur egunetatik edo zehinetan, irabazten da *Induljenzia plenaria, ta barkazio osoa*.

Hau bera Berriz egiten den aldioro irabazten da *zazpi urteko, ta zazpitan berrogei eguneko Induljenzia*.

Bederatz-urrunaren ondotik arkituko dezu S. FRANZISKO XABIER beraren Amar-urruna. Hau egiten den egunetarako bada Induljenzia bera; ta otoitza egiten denen aldi baterako *osoa*; ta beste egunetarako *zazpi urte, ta zazpitan berrogei eguneko*.

Egun onelakoetan egin oi diran gauzak arkituko dituzu Aita S. IGNAZIOren Bederatz-urrunaren asieran; p. 150.

EGUNOROKO ASIERA

Santuaren Aldarean, edo haren Imajinari begira zaudela, ziñatuko zara, ta esain dezu: *Nere Jesu-Kristo Jauna, &c* ta urrengo

OTOITZA

Indietako Apostolu SAN FRANZISKO XABIER, Zeruko doaiez, ta Gloriz beterik arkitzen zara zu, ta Jangoikoak, eskatzen diozun gauzarik ukatuko ez dizun eran; Eska zagozu, bada, gaur guretzat; gure onerako, ta Jangoiko beraren glorirako den guzia, bai ta orain guk erditsi nai genuken beste gauza bat ere. Bai arren bai.



LENBIZIKO EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitagarria, lurreko gaisoen zai daduzkatzu zuk Zeruko zere Aingeru onak, eta egiteko berean iduki zenuen len lurreko Aingeru San FRANZISKO XABIER. Lurreko zure Aingeru onak, eta Zeruko zere Aingeruak ematen dizuten atsegin andiatatik iguzu guri zuk, Aingeru orienaren erako biziera garbi on batek eskatzen duen zure laguntza ta grazia; bai ta, gaur zuri guk eskatzen dizugun beste guzia ere: bai arren, bai.

Santuaren izenean irur Aita gure, ta Abe Mari; ta

EGUNOROKO IRURGARREN OTOITZA

San FRANZISKO XABIER, gaistakeririk bageko aurtxoan ezpañetatik, zuri dagozkizun laudarioak atera oi dituzun Santua, agitz nai genuke, arki litezen gure bihotzak, gure azken hordua datorren horduko, emengo gogoeta txarrik bage, ta, Zerurako asmo garbiz, ta gogoz ongi beteak, horduan ongi laguntzen digula gure Jesusen Ama maitagarriak, izan dezagun guk, Jesusen eriotzaren erako eriotz on garbi zuzen bat. Eriotz on onetarako bidea da, horduan guk naiko dugun eran emen gu beti bizitzea; ta erditsi behar diguzu, onetarako guk beharko dugun laguntza, ta grazia: bai ta orain guk eskatu uste dugun beste guzia ere: bai arren, bai.

Orain eskatzen dio bakoitzak bere Jangoikari, San Franzisko Xabier Arteko arturik, erditsi uste duen grazia; ta esaten dio gero, Santuak egunoro esan oi zion,

OTOITZA

Gauza guzien egille, gure Jangoiko maitagarria, ekusten dezu zuk egiñak dirala, bataiatu bage arkitzen diran munduko Animak. Badute oriek ere, besteak bezala, zure aintzura, ta iduri ederra. Baña, gure Lege zuzen garbiaren berririk bagez, illunbean dabilta, ta beren betiko galbideetan. Argi egiezu, bada, ezagu dezaten gure Jesus maitagarriari zor

diotena, baliatzen dirala Jesus beraren Pasione santaz, igan ditezen Zerura, Jesus berari an, dagozkan esker onak ematera. Egizu hau zuk gure Jangoiko maitagarria, Anima bekatarari oriek gatik ezpadere, maite zaituzten, Zeruko zere Santuak gatik, eta Elizan, edo zure Legean bizi diranen otoi-tzen alde. Bai arren, bai.

AÑA. Hic vir despiciens mundum, & terrena, triumphans, divitias Coelo con-didit ore manu.

V. Justum deduxit Dominus per vias rectas.

R. Et ostendis illi regnum Dei.

OREMUS

Deus, qui Indiarum gentes, B. Francisci praedicatione, & miraculis Ecclesiae tuae aggregare voluisti, concede propitius, ut cuius gloriosa merita veneramur, virtutum quoque imitemur exempla. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

BIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitagarri, zure glorirako, ta gure onerako diran egiteko andiak zere Arkarjeloei ematen dieztezuna, ta era bereko egitekoetan S. FRANZISKO XABIER erabilli izandu zenuena, onak, ta oriek beren lan andi onetan eman zituzten atsegin andiatatik, iguzu guri, gure lan-egiteko guziak zuzen-zuzen, ta zure gogara egiteko grazia: bai ta, orain guk eskatu uste dizun, beste guzia ere. Bai arren, bai.

IRURGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitagarria, Zeruko zure Prinzipadua zirudien S. FRANZISKO XABIERrek, emen bizi zenean; bada, Zerukoak bezala, berez batzuetan, ta gañerakoan bere lagunak hartara bidalduz, erakutsi zien mundukoei, onak izateko, ta gero Zeruan sartzeko, jakin behar zutena. Zure izenean onak egin, ta eragin zuenagatik, indazu niri, nere gauza guziak zuzen egiteko grazia: bai ta, orain eskatu uste dizudan beste guzia ere. Bai arren, bai.



LAURGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitea, Zeruko zure Potestadeak ez-ezik, S. FRANZISKO XABIERrek ere aienatzen zituen munduko gaisoen gorputz-animetatik sulezeko gaistagin amurratuak. Lurreko zure Potestate onek, eta Zerukoak zure izenean egin izandu dutenagatik, eman behar diguzu, guk, geren etsai gaistoak garaitzeko, beharko dugun laguntza ta grazia: bai ta, orain guk eskatu uste dugun beste guzia ere. Bai arren, bai.

BOSTGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitagarria, Zeruko zere Birtuteez gauz on anitz arrigarri egiten dituzuna, ta S. FRANZISKO XABIERri ere Zeruan, Lurrean, Itsasoan, ta non-nai eragin oi diozkatzuna; oni orretarako eman zenion, esku andiagatik, eta onek berak bere gauz andi ta milagro guzien artean izandu zuen humiltasunagatik, indazu, nere gauza guziak zuzen, ongi, ta humilki egiteko grazia. Bai ta, orain eskatzen dizudan beste guzia ere. Bai arren, bai.

SEIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitea, esku andikoak badira ere zure Aingeru Dominazioak, beste Aingeruak bezain prest arkitzen dira, zuk adirazten diezun guzia bertan egiteko. Anitzen nagusi ta buru bezala zen S. FRANZISKO XABIER bere Indietan, ta alere gogo osoz, bertan, ta luzatu bage, egiten zuen zure izenean adirazten zioten edozein gauza. Lurreko zure Dominazio onek, eta zere Zerukoak zuri dizuten begirun humill onagatik, iguzu guri, zuk zerorrek, eta zure ordezkokoak adirazten digutena

laster ta zuzen egiteko grazia: bai ta orain eskatu uste dizugun beste guzia ere. Bai arren, bai.

ZAZPIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitea; zure Aingeru Tronuen egitekoa bere gain arturik, Mundu guzian ibilli zen San FRANZISKO XABIER, zure Izena ta zure Legeko berri onak banatzen. Orretan onek eman izandu zizun atsegin andiagatik, indazu niri zuk, zure Lege berak erakusten didan eran bizitzeko grazia; bai ta, nik orain eskatzen dizudan beste guzia ere. Bai, arren, bai.

ZORTZIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gure Jangoiko maitea, zere Aingeru Kerubinei ez-ezik, San FRANZISKO XABIERri ere agertu zeniozkan zuk, zere gauza ta misterio agitz andiak; eta lurreko zure Kerubin onek egin izandu zuen, Zeruko zure Kerubinen eran, zure agertze, ta erakuste andi onek eskatzen zuen egiteko guzia. Orretan zuk artu zenuen atsegin andiagatik, eman behar diguzu, guk jakin behar ditugun gauzen Berria, ta zure Berri onek eskatzen duen eran bizitzeko grazia; bai ta orain guk eskatuko dizugun beste guzia ere. Bai arren, bai.

BEDERATZIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Badakit nik, nere Jangoiko maitagarria, zere Amorez urtzen daduzkatzula zuk zere Aingeru Serafinak; eta badakit nik orietatik bat zirudiela San FRANZISKO XABIERrek, emen bizi zen denboran ere. Lurreko zure Serafin onek, eta zere Zerukoak zuri dizuten amore andiagatik, iguzu guri, guk, zu ziñez maitatzeko beharko dugun laguntza ta grazia: bai ta, Bederaz-urrun onetan eskatu dizugun guzi-guzia ere. Bai arren, bai.



S. FRANZISKO XABIERREN AMAR-URRUNA

Zenbaitek egiten diote San FRANZISKO XABIERri urtean bein bere AMAR-urruna, edo amar eguneko eskaera bat, edo Otoitza. Egiten da amar egunez Otoitz hau, San FRANZISKO XABIERrek Indietan, Ebanjelioa erakusten egin zituen amar urteen izenean; ta egiten da, ez errenkako egunetan, baizik amar ostiralez.

Ostiralak artzen dira orretarako, ta ez beste egunak, zeren Santua ill izandu zen ostiral batez. Eta artzen dira Santuaren eguna baño lenagoko amar ostiralak, edo Santuaren egun berari darraizkonak. Santuaren eguna, urtearen azken illeko irurgarren eguna da.

Amar-urrun hau egiten duenak konfesa-komekatu behar du ostiraloro; ta egun orietan egin behar ditu, Bederatz urtenetako berezi diran gauzetatik bat edo beste. *Ekusiko dituzu, hau egiten dutenen Induljenziak pag. 171.*

Ostiral bakoitzean, konfesa-komekatu ondoan, erraten dira amar Aira gure, Abe Mari, ta Gloria Patri; ta gero urrengo

OTOITZA

Indietako Apostolu San FRANZISKO XABIER, gure Jangoikoak zuri emanikako eskuarekin, nai dezun guzia egiten dezuna, ta amar urtez len Indietan lurrekoei, Zeruko bidea erakusten anitz nekerekin ibilli izandua; eskatu behar diozu gure Jangoiko berari, diela Jentilei bere berria, gaizki bizi diranei ontzeko asmoa, gure Legeko Erregeei elkarren arteko bakea, ta beren etsaiak garaitzeko indarra ta eskua, ta Purgatorioko gaisoei, bere aurpegia ta gloria, ta didala niri ere, orain nik eskatzen diodan guzia.

Zuganatzen diranak aditzen dituzu zuk, nere Apostolu Santua, ta ni ere adituko nazulako ustean etorria naz zugana gaur. Adi nazazu bada nere Santua, ta egizu zuk, nik gaur zuri eskatzen dizudan guzia. Bai arren nere Bitarteko maitagarria, bai.

SAN FRANZISKO XABIERRI

Deiez dago mundua
negarrez, ta gogotik;
*San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.*

Santu bata batetako
besterako bestea:
San Xabier, zu zara
nai dutenen onerako.
Dago gure bizia
neke-penaz beterik
*San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.*

Agertu nai badezu,
dezun esku ta indarra,
gure neke gogorra
kendu baizik ez dezu,
Ai! Orretan asia
bazeunde zu gaurdanik!
*San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.*

Ez andi, ta ez txirikik
arkitzen da munduan,
ez duenik askotan
behar asko Zerutik.
Zuk hau bai dakizula,
ez dugu guk dudarik.
*San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.*

Behartsuak askotan
zugana bildu dira:
utsik irten ez dira
orrelako horduan.



Baldin zu mudatua
ezpazaude geroztiek,
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Nere behar andiak
nakar ni gaur zugana:
badaduizu zertara:
jakin beza munduak.
Nik eskatzen dudana
betor emen bertatik:
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Anitz da len munduan
zuk egin zenuena:
geldirik egotera
sartu zara Zeruan?
Ezin izain da orkoa
dagoena geldirik:
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Len ta gero bat zara;
ongigillea beti:
ez arren uka niri
orair behar dudana.
Uste dut, ez nazula
utziko ni galdurik:
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Badakizu bizia
ematen ill zenari:
bai-ta beste edozeñi,
behar duen guzia.
Nik ere nai dudana
uste dut gaur zugandik:
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Itsasoz, ta leorrez
zenbait on egin dezu:
zerbait utzi badezu,
izandu da nai gabez.
Zuk nai dezun guzia
nai du Jaunak bertatik.
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Argia behar badu
Itsasoko tristeak,
laster zure eskatzeak
Eguzkia lotzen du.
Ez bat galdu dedilla,
izan gabez argirik.
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Erretzea suari
kendu zenion noiz-bait:
ez diozu utzi nonbait
gatzik ur gaziari.
Bekatuena gazia
ken baledi gugandik!
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.

Alaba Seme egiña
Ama batek nai zuen:
zure Elizan egin zen,
hark eskatzen zuena.
Guk eskatzen duguna
orain bihotz guzitik:
San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.



Bi toki zuk batetan
bete zenituen len:
arki zaitetz gaur emen,
or zaudela Zeruan.
Zu bazatoz gugana
ez da geroz nekerik:
*San Xabier Zerutik
iguzu zuk eskua.*

SAN LUIS GONZAGAREN BEDERATZ-URRUNA

§. I. NOIZ, TA NOLA EGITEN DEN BEDERATZ-URRUN HAU

Garagartzaren ogei-ta-batgarrenean da San LUIS GONZAGAREN eguna, ta egin dakiokete bere Bederatz-urrun hau, zortzi egunez lenagotik asi, ta egun berean bukatzen dela; edo bezperatik asi, ta egunetik zortzi-garren eguneraño; bai ta urteko beste edozein bederatz egunez ere.

Egiten da Bederatz-urrun hau, bertzeen eran, edo erranez egunoro, orretarako diran irur oroitzak, eta bere tokian adiraziko diran gauzak.

Egiten da, gure Jaunagandik zerbait erditsi nai denean San LUISen Artez; ta egiten da, zenbait present egiten zaizkala San LUISi.

Presentak izan ditezke Aita S. Ignazioren Bederatz-urrunean arkitzen diranak, pag. 150.

§. II. EGUNOROKO ASIERA

Belaunikatu, ziñatu, ta *Nere Jesu-Kristo Jauna, &c* esan ondoan, San LUIS Bitarteko arturik, eskatuko diozu zuk Jangoikoari egunean eguneko otoizak diotena, ta erditsi gogo dezun guzia.

EGUNOROKO LENBIZIKO OTOITZA

Gloriz beterik arkitzen zaran S. LUIS GONZAGA, erditsi behar diguzu gure Jaunagandik, zure Bederatz-urrun onetan guk eskatzen diogun guzia, edo, guri hau ezpadagokigu, Jangoiko bera guk ongi maitatzeko, ta egunoro obeak izateko beharko dugun laguntza ta grazia. Bai arren, bai.



LENBIZIKO EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Zure eran bizi nai dutenei esaten diezu zuk, gure Jesus maitagarria: BIHOTZ emezkoa naz ni, ta guztiz humilla; ta era berekoak izan behar dute, nerekin gero Zeruan egon behar dutenak. Era onetakoa izandu zen zure serbitzari on San LUIS Gonzaga; bada nai-gaberik bage, ta humillera, ta atsegin andiarekin artzen zituen bere bidegabe ta kontrako gauza guziak. Zure erakuste eder, ta San LUISen egite zuzen onegatik, indazu niri zuk, ori bera nik ere egiteko beharko dudan gogargia ta Zeruko grazia: bai arren, bai.

*Aldareko sakramentuari San LUISek izandu zion, debozione andiaren ize-
nean irur Aita gure, ta
Abe Mari.*

EGUNOROKO IRURGARREN OTOITZA

Urte gutziko bizitzarekin igan zara zu, San LUIS Gonzaga, Aldareetako Santuen artera. Zere ibillera eder garbiagatik eman oi zizuten zuri zere bizitzan Aingeruaren izena; ta, zeren zuk zere gaztetasunean kontuz ta zuzen egiten zenituen zere ikasteak, egin zaitu Aita Santuak Ikasle gazten Bitarteko. Gazteak eta gañerakook Ikasleak gara lurrean garanok. Erditsi zaguzu bada, Bitarteko onak bezala, geren Legeko gauzak eta gañerako jakin behar ditugunak Ikasteko, ikasten ditugunak Egiteko, Aingeruen eran, ta, zu bezala, Bizitzeko, ta Zeruan gero zure lagun izateko, beharko dugun eskua, laguntza ta grazia; baita orain bihotzez eskatuko dugun beste guzia ere. Bai arren, Bitarteko maitea, bai.

*Isillikako otoiitzean eskatzen dio bakoitzak bere Jangoikoari, erditsi gogo-
duena; ta erraten dio gero Santuari.*

*AÑA. Hic vir despicens mundum, & terrena, triumphans, divitias Coelo con-
didit ore manu.*

V. Justum deduxit Dominus per vias rectas.

R. Et ostendit regnum Dei.

OREMUS

Coelestium donorum distributor, Deus, qui in Angelico juvene Aloysio miram vitae innocentiam pari cum poenitentia sociasti, eius meritis, & precibus concede, ut innocentem non secuti, poenitentem imitemur. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

BIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

A! gure Jesus maitagarria, zere bizi guzian izandu ziñan zu izatez ta naiez *gabe*, ta *behartsu!* Zure eran bizi naiez, utzi zituen San LUIS Gonzagak, Mundu onetan zituen Ondasunak eta Titulo andiak; eta, zure Konpañiako behartsu guzien artean egin zen behartsu. Zere *behartasun* laudagarriagatik bada, ta San LUISen behartasun onaren alde, iguzu guri zuk, geren behar ta gabe guziak emeki, ta zuzen artzeko grazia; bai ta, gaur eskatzen dizugun beste guzia ere. Bai arren, gure Jangoiko maitea, bai.

IRURGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Neketan beti bizitu ziñan zu, gure Jangoiko gizon Jesus maitagarria; ta badakizu zuk, zein andiak izandu ziran, zure nekeen alde San LUISek artu izandu zituen nekeak; bada izandu ziran nor nai arritzeko aski, ta sobera diranak. Santu onek zure izenean, ta zuk zerorrek gure amorez arturikako pena nekeak gatik, bada, erran behar diguzu, guk, geren neke laburrak, behar bezala, artzeko beharko dugun laguntza, ta grazia; bai-ta, orain eskatzen dizugun beste guzia ere. Bai arren, Jangoiko maitea, bai.

LAUGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Lirio ederren artean bazkatzen den bildotsa bezala, zara zu, gure Jesus maitagarria; bada atsegin kontentuz asetzen zara zu, garbiro bizi diran Animen artean. Badakizu zuk, zein garbi eder zuria izandu zen, San



LUIS Gonzagaren Anima: bada etzuen galdu bein ere bere Bataioko grazia; ta bizitu zen, ill arteko bere denbora guzian, gogorazio ez-garbi bat izandu gabe. Santu onen garbiera andiagatik, eta zere ontasunez, eman behar diguzu zuk, gogorazio lizunik bage, edo, agertzen diranak, bertan aienatzen ditugula, ta garbi-garbiro bizitzeko grazia: bai ta orain eskatu behar dizugun beste bat ete: Bai arren bai.

BOSTGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Ait-eternoari zenion amore andiagatik, egin zenuen zuk, Jesus maitagarria, Aita eterno berak agindu edo adirazi zizun guzia; izanik ori, askotan beinbat, ongi ikaragarria. Amore berak eragin zion San LUIS Gonzagari ere (ta bat-ere luzatu gabe, ta guztiz emeki), manatzen zioten edozein gauza, ta zure gogarakoa zela, ezagutzen zuen guzia, naiz erraza izan zedilla, ta naiz gaitza, bata ta bestea. Bitarteko on onen izenean bada, ta zere amore andiagatik, eman behar diguzu zuk, gure Jesus maitagarria, zere amore zati andi bat, egin ditzagun guk ere, behar den eran, gure egiteko erraz ta gogor guziak: bai ta orain guk nai genuen beste guzia ere. Bai arren bai.

SEIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Zeren zere Aita eternoari ongi nai zenion zuk, gure Jesus maitagarria, ezin geiagorano nai izandu zenien Munduko gaisoei ere; ta Mundu berekoen zorren alde artu zenituen zuk, zere bizitza guziko nekeak, eta nekeen buruko eriotz ezin gogorragoa. Zure eran zebillen San LUISek ere agitz nai izandu zien lurreko bekatari; ta bekatarien onerako, ta Jentilak ere zuzendu naiez, joan nai izandu zuen Indietaraño; ta, ori ezin zuenean, sartu zen Hospital batean, izurritzko edo pozoiezko eritasunekin an arkitzen ziran anitzi laguntzera; ta lagundu zien ezin obeki, bera eritu, ta santuki iltzeko, bere etxera artean. Santu onek zure amarez, ta zuk gure amoreak gatik artu zenituen neke andien ta eriotzaren izenean, iguzu, al dugun guziei guk ere laguntzeko, ta geren egunak ongi

bukatzeko, beharko dugun laguntza ta grazia. Bai ta orain eskatzen dugun hau ere. Bai arren bai.

ZAZPIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Zure Aitak nai zuena zuzen egiteagatik, milla nekeren buruan, ta gurutzeko batean iltzez josirik zeundela, eman zenuen zuk, gure Jesus maitagarria, mundu guziak baño geiago balio zuen zere bizia. Aita berari, zuri, ta Espiritusantuari atsegin egin naiez, egin zuen beti San LUISek ere zure izenean adirazi zioten guzia. Zuk zerorrek egin zenuenagatik, eta Santu onek, zuri ongi-naiez, egin zuenaren alde, iguzu zuk, geren gauza guziak zuzen egiteko beharko dugun laguntza ta grazia: bai ta, orain eskatuzera goazkizun beste guzia ere. Bai arren, bai.

ZORTZIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Guri alderagotik lagundu naiez, Aldareko Sakramentuan gelditu zara zu, gure Jesus maitagarria; ta, alderagotik zuri, Sakramentu bereko ondasun onen eskerrak emateagatik, urbiltzen zen maiz aski, ta ongi prestatu-rik, komuniatzera, San LUIS Gonzaga. Santu onen komunione onak gatik, bada, ta zere Sakramentu andi orretan zuk erakusten diguzun bazterrik bageko amorearen izenean, eman behar diguzu, maiz-maiz komuniatzeko gogoa, ta komunione onak eskatzen duten bizitzarako beharko dugun laguntza ta grazia; bai-ta orain guk eskatzen dugun ontartea ere. Bai arren bai.

BEDERATZIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA

Gurutzeko zere neke guzien artean utzi zenigun zuk, gure Jesus maitagarria, gure Amatako zere AMA maitea. San LUIS Gonzagak, Birjin Ama beraren Seme ona baño, ohea izan naiez, artu izandu zuen haren



imajiña baten oñetan, hura bezala, Birjin izateko asmoa, ta botoa; ta zure Ama Birjina beraren izenean egin oi zuen, zuri atsegin egiteko zela, eza gutzen zuen guzia; ta orregatik Birjina beraz adirazi zenion zuk, sar zedilla, sartu zen bezala, lurreko zure Konpañian. Izan gaitezen gu ere, S. LUISen eran, zure Ama maitearen hume onak, eta Zeruko guzien lagunak, eman behar diguzu, beraren Festetako konfesionak, egunoroko Errosarioa, ta gañerako gauzak zuzen egiteko grazia; bai, ta orain eskatzen dugun ontartea ere. Bai arren bai.

SAN LUIS GONZAGAREN SEI-URRUNA

Hau egiten dutenak urteoro, irabatzen dituzte sei *Induljenzi Plenari*, edo *osa*.

San LUIS Gonzaga kanonizatu zuen Aita Santuak, kanonizatu zuela dio, izan dedin leneko bere birtute ta bizitza zuzenarekin munduko guzien, ta, guzien artean, gazte ikasleen erakusle; ta Jaungoikoarekiko duen bere esku andiarekin orien, ta nai duten guzien Bitarteko.

Artu duten zar-gazteei etzaie egiñaz bat ere damutu; bada beren Santua gertatu zaie Erakusle, ta Birarteko guztiz ongille zuzena, edo agiz ongi lagundu diena beren ikasteetan, ta beren Jaunagandik uste zituzten gauzak erdisten.

Orregatik, eskerdun onak bezala, zenbaitek egiten ziozkaten Santuari onelako presentak, zenbaitek alakoak, eta orietatik batzuek Bederatzurrunak, eta besteak Sei-urrunak, nori nola bere debozitoneak agintzen edo eragiten zion.

Eta ekusirik, amabigarren Klemente zeritzan Aita Santuak, Santuaren Sei-urrun hau egiten zutenak erdisten zituztela anitz ondasun ta ontarte, erakutsi zuen mundu guziarentzat ontarte-bide hau, egiten zuela orretarako, horduraño beste Santurekin Aita Santuk egin ez duen gauzandi bat.

Zer, uste dezu?

San LUISen izenean urteoroko sei Induljenzi oso-oso, edo plenari bereistea.

Zeri zegokala?

Santuak Jesusen Konpañian igarorrikako urteen izenean.

Konpañi onetan sartu zenetik ill arteko Santuaren urte guziak sei urte izandu ziran.

Beti bizitu zen ongi gure Santua; baña azkeneko bere sei urte orietan Aingeru baten eran.

Naiez bada Klemente Aita Santuak, Bitartekotzat artzen dutenak San LUIS, bizi ditezen onen eran, ekusiz, ta maiz gogoratzen dutela, sei urtez Santu gazte batek egin zuena, ta guk ere, nai badugu, dagikeguna ematen diezte 1740garren urteko bere Bula batean sei Induljenzi Plenari, edo oso, S. LUIS Gonzagaren Festa baño lenagoko sei Igandean, edo urteko beste edozein seietan konfesa-komekatzen diranei, sei Urtez San-



tuak Konpañian egiñikako bizitz-onaren izenean, Santu beraren izenean igandeoro egiten badituzte deboziozko zenbait gauza. Gauz oriek dira libruetan irakurtzea, otoitz egitea, behartsuari zerbait ematea, ta Bederatz-urrunerako berezi ditugunetatik beste zenbait, pag. 150.

Erraza da, dakusazun bezala, ta ondasunduna San LUIS Gonzagaren Sei-urrun hau egin dezakezula, uzteko. Egizu bada urteoro, ta irabazkitzu ondasun oriek, eta anitz birtute, ta Zeruko grazia.

Behar dezun, indarra
Jainkoak eman dizu;
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*

Nekez zatoz mundura
Amaren sabeletik;
BIRGIN Arteko arturik,
Jaio ziñan bizia.
BATAIOko grazia
lendanik artu dezu.
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*

CASTELLON, ta best erriak
nai zatuzte Jauntako;
etzaduzka orretako
Jainkoaren gogargiak.
JESUSen Konpañia
Jaunak eman nai dizu.
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*

Aidez-gurasoz etsaia
dabil zu makurtu naiez;
zu zabilta zuzen, aiez
dezula ez aditu-naia.
JESUSgatik mundua
lenbaitlen utzi dezu
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*

JESUSen ondotik zu
zuzen zenbiltzan beti:
Konpañian obeki
lan hau zuk egin dezu.
Len ona, emen Santua
ekus izan zaitugu.
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*

JESUS nekez betea
beti dezu gogoan;
al badezu soñean
ordañezko nekea:
barren kanpoz bai-zara
haren imajina zu.
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*

JESUS humill, humill zu;
biok Aita meneko;
onen naia hark osoro,
bai zuk ere egin dezu.
Zere JESUS maitea
Maisutzat artu dezu.
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*

JESUS amorez urtzen
ALDAREko maiean;
LUIS komunioan
haren amorez urtzen,
bein bata, bein bestea
erakusle ditugu.
*San Luis zuk iguzu
zere laguntz-eskua.*



Bagenu guk artua,
 JESUS, zure bidea,
 zure amorez betea
 geneduke bihotza.
 ONGI zuk ikasia
 ibiliz, utzi duzu.
*San Luis zuk iguzu
 zere laguntz-eskua.*

BIRJIN AMA maitea
 onetsi dezu beti:
 sar balekit gaur niri
 beraren amorea!
 ERDISTEKO grazia
 Arteko ona zara zu:
*San Luis zuk iguzu
 zere laguntz-eskua.*

Zuk eskatuz egin du
 Jaunak anitz gauz audi;
 orain dago egingarri,
 eskatzera noan hau.
 Zuk ala nai dezula
 gaur nik uste dut artu.
*San Luis zuk iguzu
 zere laguntz-eskua.*

Bitarteko izan zaitez
 gaur, ta bigar, ta beti;
 ez gu gabe zuk utzi,
 eskatzeko lots-alkez.
 ZUK eskatzen dezuna
 Jaunagandik badezu.
*San Luis zuk iguzu
 zere laguntz-eskua.*

Gloriaz, ta birtutez
 beterik zu Zeruan;
 beterik gu lurrean
 nekez, lanez, nai-gabez.
 Zure bide ber-bara
 gogoz guk artu dugu:
*San Luis zuk iguzu
 zere laguntz-eskua.*

